# 4

# HEZKUNTZA

# EDUCACIÓN

**Alfonso Unceta Satrústegui (*)**
**Álvaro Luna García (**)**

(*) **Soziologia 2 saileko irakasle titularra. Gizarte eta Komunikazio zientzien fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).**
Profesor titular del Departamento de Sociología 2. Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación. Universidad del País Vasco (UPV).

(**) **Soziologia 2 saileko doktorego aurreko ikerlaria. Gizarte eta Komunikazioa zientzien fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU).**
Investigador pre-doctoral del Departamento de Sociología 2. Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación. Universidad del País Vasco (UPV).

# ÍNDICE

1. INTRODUCCIÓN
   1.1. Comprender la educación hoy
   1.2. Las prioridades del sistema educativo en la C.A. de Euskadi
   1.3. Guía para leer este informe
2. ESTRUCTURA DEL SISTEMA EDUCATIVO DE LA C.A. DE EUSKADI
   2.1. Ámbito no universitario
   2.2. Ámbito universitario
3. PANORÁMICA DEL SISTEMA EDUCATIVO DE LA C.A. DE EUSKADI
   3.1. Evolución del alumnado
      3.1.1. Evolución general
      3.1.2. Red de escolarización, niveles y ámbitos educativos
      3.1.3. Sexo y campo de especialización
      3.1.4. Distribución por opciones lingüísticas
   3.2. Centros
   3.3. Personal docente
   3.4. Ratio profesor/alumno
   3.5. Tasas de escolaridad
4. EQUIDAD EN EL SISTEMA EDUCATIVO DE LA C.A. DE EUSKADI
   4.1. Acceso a la *educación*: diversidad y extensión territorial de la oferta
   4.2. La escolarización del alumnado extranjero
   4.3. Atención a las necesidades educativas especiales
   4.4. Alumnado becario
   4.5. Alumnado con edad no idónea
5. CONCLUSIONES

# AURKIBIDEA

1. SARRERA
   1.1. Gaur egungo hezkuntza ulertzea
   1.2. Euskal AEko hezkuntza sistemaren lehentasunak
   1.3. Txosten hau irakurtzeko gida
2. EUSKAL AEko HEZKUNTZA SISTEMAREN EGITURA
   2.1. Unibertsitatez kanpoko eremua
   2.2. Unibertsitateko eremua
3. EUSKAL AEko HEZKUNTZA SISTEMAREN IKUSPEGIA
   3.1. Ikasleen bilakaera
      3.1.1. Bilakaera orokorra
      3.1.2. Eskolatze sarea, mailak eta hezkuntza-eremuak
      3.1.3. Sexua eta espezializazio-eremua
      3.1.4. Banaketa, hizkuntz aukeren arabera
   3.2. Zentroak
   3.3. Irakasleak
   3.4. Irakasle/ikasle ratioa
   3.5. Eskolatze tasak
4. EUSKAL AEko HEZKUNTZA SISTEMAREN EKITATEA
   4.1. *Hezkuntza* eskuratzea: eskaintzaren dibertsitatea eta lurralde-hedapena
   4.2. Atzerriko ikasleen eskolatzea
   4.3. Hezkuntzako beharrizan bereziei arreta egitea
   4.4. Bekadun ikasleak
   4.5. Adin egokia ez duten ikasleak
5. ONDORIOAK

# 1. INTRODUCCIÓN

Es bien sabido que la *educación* es una actividad muy amplia que incluye dimensiones y actores muy diversos. Este informe se refiere exclusivamente a la actividad educativa que tiene lugar en los centros de enseñanza del sistema educativo de la C.A. de Euskadi. Y es una mirada hacia atrás, al pasado inmediato, por cuanto pretende dar cuenta de manera documentada de lo acontecido en nuestro sistema educativo durante los últimos años. Ahora bien, la amplitud del sistema educativo por una parte, y las lógicas limitaciones de este informe por la otra, aconsejan acotar los objetivos que, en todo caso, incluyen una doble perspectiva.

Por una parte, se va a presentar y analizar una síntesis de indicadores que reflejan lo fundamental de la evolución de las enseñanzas de régimen general[1] del sistema educativo de la C.A. de Euskadi, una visión de conjunto. Por la otra, nos ocuparemos con algún detalle de una dimensión menos visible de nuestra *educación*, la que tiene que ver con el compromiso con la equidad. Los sistemas educativos contribuyen de manera decisiva a la cohesión y la equidad social. Y más que nunca en el tiempo presente. Hemos querido resaltar esta contribución, analizando de manera específica la aportación a esta tarea redistributiva y compensatoria del sistema educativo de la C.A. de Euskadi.

Esta introducción incluye tres apartados. El primero constituye una breve reflexión sobre el escenario educativo presente para entender mejor las características actuales de nuestro sistema educativo. El segundo pretende ser un repaso también somero de algunas de las claves de la política educativa en la C.A. de Euskadi en el periodo que abarca este informe. En el tercero se quiere explicar a los lectores la manera en que se ha organizado la información y los contenidos del texto.

## 1.1. Comprender la educación hoy

A medida que las sociedades se han hecho más complejas, la actividad educativa se ha visto sometida a un proceso casi permanente de adaptación y cambio. Y, por qué no decirlo, se ha convertido también en un objeto de debate pues no en vano es un ámbito cargado de expectativas, para los estudiantes, las familias y la propia sociedad. Además, se diga lo que se diga, cuanto mayores y más diversas han sido tales expectativas los sistemas educativos han tenido más dificultades para dar una respuesta adecuada y satisfactoria.

[1] Las enseñanzas de régimen general incluyen los niveles de educación infantil, primaria, secundaria, formación profesional y enseñanza universitaria. Son enseñanzas de régimen especial las artísticas, musicales, de idiomas, etc.

# 1. SARRERA

Ondo jakina da *hezkuntza* jarduera oso zabala dela. Dimentsio eta eragile asko eta ezberdinak hartzen ditu bere baitan. Txosten honetan, Euskal AEko Hezkuntza Sistemako ikastetxeetan egiten den hezkuntza-jarduera soilik aztertu dugu. Atzera begira egin dugu, iragan hurbilari begira. Izan ere, azken urteetan gure hezkuntza sisteman gertatu dena modu dokumentatuan aztertu nahi izan dugu. Ordea, batetik hezkuntza sistemaren zabaltasuna eta, bestetik, txosten honen muga logikoak kontuan izanik, gure helburuak zehaztu behar ditugu. Dena den, helburu hauek bi ikuspegi dituzte.

Alde batetik, Euskal AEko Hezkuntza Sistemaren araubide orokorreko irakaskuntzen[1] bilakaeraren funtsa islatzen duten adierazleen laburpena aurkeztu eta aztertuko dugu, ikuspegi orokorra edukitzeko. Beste alde batetik, gure *hezkuntzaren* beste dimentsio bat, hain agerikoa ez dena, modu xeheagoan aztertuko dugu: ekitatearekiko konpromisoa. Hezkuntza sistemak gizarte kohesioan eta ekitatean ekarpen funtsezkoa egiten du. Eta are gehiago gaur egun. Ekarpen hori nabarmendu nahi izan dugu, Euskal AEko Hezkuntza Sistemak birbanaketari eta konpentsazioari egiten dien ekarpena beren-beregi aztertuz.

Sarrera honek hiru atal dauzka. Lehenengoan, gaur egungo hezkuntzaren egoerari buruzko gogoeta laburra egin dugu, gure hezkuntza sistemaren gaur egungo ezaugarriak hobeto ulertu ahal izateko. Bigarrenaren bidez, txosten honek hartzen duen denboraldian Euskal AEko hezkuntza politikaren klabeetako batzuen errepaso laburra egin dugu. Hirugarrenean, irakurleei azaldu nahi diegu informazioa eta testuaren edukiak nola antolatu ditugun.

## 1.1. Gaur egungo hezkuntza ulertzea

Gizarteak gero eta konplexuagoak diren neurrian, hezkuntza jarduera ia etengabeko egokitze eta aldaketa prozesu batean sartu da. Eta, zergatik ez esan, eztabaidagai bihurtu da, eremu honetan espektatiba asko sortzen baitira, bai ikasleentzat, bai familientzat, bai gizartearentzat berarentzat. Era berean, esanak esan, espektatiba horiek zenbat eta handiagoak eta ezberdinagoak izan, orduan eta zailagoa izan da hezkuntza sistementzat erantzun egokia ematea.

[1] Araubide orokorreko irakaskuntzetan haur, lehen eta bigarren hezkuntzak, lanbide heziketa eta unibertsitateko irakaskuntza sartzen dira. Araubide bereziko irakaskuntzetan artea, musika, hizkuntzak eta abarrekoak dira.

Para comprender este estado de cosas es necesario entender que la sociedad está trasladando constantemente nuevos problemas a los sistemas educativos, nuevas demandas, nuevas exigencias. Y todo ello no hace sino producir desajustes e inestabilidad en la *educación*. Especialmente difícil de asimilar ha sido la extensión de la enseñanza obligatoria hasta los dieciséis años, cuestión que no sólo ha modificado el diseño de los centros, sino que ha traído además una profunda transformación de objetivos, contenidos, metodologías y sistemas de evaluación.

Lo cierto es que quienes se dedican de manera activa a la *educación* saben que el paisaje de los centros educativos ha cambiado sobremanera, que el clima en los centros es hoy día muy diferente y que las prácticas educativas tradicionales son una reliquia del pasado. Actualmente, la preocupación por el fracaso escolar, por la integración, por el desarrollo de las capacidades de cada persona, por motivar al alumnado, por el mantenimiento de la cohesión social… son buenos ejemplos de los temas de la agenda educativa.

Siendo las cosas así, si durante muchos años lo que nos preocupó fue la cantidad (que más y más personas pudieran estudiar y pudieran hacerlo durante el máximo tiempo posible), hace ya tiempo que el problema de la *educación* es la calidad (que las personas estudien de la manera más adecuada, que sus oportunidades formativas sean las mejores, y que los resultados sean aceptables). Este cambio de perspectiva lo explica perfectamente García Garrido: «*la preocupación por la calidad es el leit motiv de todas las reformas y experimentaciones recientes, contraponiendo así el esfuerzo realizado a lo largo de todo el siglo XX a favor de la cantidad*».[2]

## 1.2. Las prioridades del sistema educativo en la C.A. de Euskadi

Los rasgos que hemos señalado son plenamente característicos de la *educación* en la C.A. de Euskadi. Nuestro sistema educativo ha integrado plenamente el discurso de la calidad, si bien es cierto que este concepto tiene muchos significados posibles. De hecho, términos tales como eficiencia, resultados, planificación, evaluación, gestión, equidad, etc., se van entrelazando de distinta manera y terminan por modelar distintas concepciones de la calidad. Ahora bien, fijar los objetivos y establecer las prioridades del sistema educativo en la C.A. de Euskadi es una cuestión institucional primero y administrativa después. Y en este último sentido puede afirmarse sin lugar a dudas que desde nuestras instituciones, en el ámbito educativo, se ha ido modelando un concepto de calidad muy vinculado a la equidad.

El paso del tiempo y la actuación de los sucesivos gobiernos nos otorgan una perspectiva suficiente para reconocer en las declaraciones y las acciones de los distintos responsables educativos un compromiso constante con la población que incorpora un mayor número de carencias, con la igualdad de oportunidades, la atención a la diversidad, la integración, en definitiva, con la equidad. Un compromiso también de una mayoría del sector educativo, apoyado desde el impulso institucional. Buenos ejemplos de esto último son las líneas

[2] GARCÍA GARRIDO, J. L. (1998): «Tendencias de los sistemas educativos de cara al siglo XXI». En Forum Deusto: *Educación*. Bilbao. Universidad de Deusto. Pág. 126.

Gauzen egoera hau ulertzeko, beharrezkoa da ulertzea gizarteak etengabe arazo berriak, eskaera berriak, exijentzia berriak eramaten dituela hezkuntza sistemetara. Eta horrek guztiak *hezkuntzan* desorekak eta egonkortasun eza sortzen ditu. Onartzeko bereziki zaila izan da derrigorrezko hezkuntza hamasei urteetara arte luzatzea. Horrek ez du bakarrik zentroen diseinua aldarazi, baizik eta helburuen, edukien, metodologien eta ebaluazio sistemen sakoneko eraldaketa ekarri du.

*Hezkuntzan* modu aktiboan dihardutenek badakite hezkuntza zentroen ikuspegia izugarri aldatu dela, ikastetxeetako giroa gaur egun oso ezberdina dela eta hezkuntza jarduera tradizionalak iraganeko erlikiak direla. Gaur egun, hezkuntzari buruz dauden kezkak hezkuntzaren agendaren gaien adibide onak dira: eskolako porrota, integrazioa, pertsona bakoitzaren gaitasunen garapena, ikasleen motibazioa, gizarte kohesioa mantentzea eta abar.

Gauzak horrela, urte askotan zehar kezkatzen gintuena kantitatea bazen (hau da, pertsona gehiagok ikasi ahal izatea eta ahalik eta denborarik luzeenean egin ahal izatea), badira urte batzuk *hezkuntzaren* arazo nagusia kalitatea dela (pertsonek modurik egokienean ikastea, haien prestakuntzako aukerak onenak izatea eta emaitzak onargarriak izatea). Ikuspegi aldaketa hau ederki azaltzen du García Garridok: «*kalitatearenganako kezka orain dela gutxi egin diren erreforma eta esperimentazio guztien leit motiv-a da. Horrela, XX. mendean kantitatearen alde egin den ahaleginari kontrajartzen zaio*».[2]

## 1.2. Euskal AEko hezkuntza sistemaren lehentasunak

Aipatu ditugun ezaugarriak oso berezkoak ditu Euskal AEko *hezkuntzak*. Gure hezkuntza sistemak kalitatearen diskurtsoa erabat integratu du; halere, egia da kontzeptu honek esanahi asko izan ditzakeela. Hain zuzen ere, zenbait termino, hala nola eraginkortasuna, emaitzak, plangintza, ebaluazioa, kudeaketa, ekitatea eta abar, modu ezberdinetan batzen dira eta azkenean kalitatearen zenbait kontzepzio moldatzen dituzte. Halere, Euskal AEko Hezkuntza Sistemaren helburuak finkatzea eta lehentasunak finkatzea erakundeen arazoa da, lehenik, eta administrazioarena, gero. Eta azken zentzu horretan, esan dezakegu, zalantzarik gabe, gure erakundeetatik, hezkuntzaren eremuan, moldatu den kalitatearen kontzeptua ekitateari oso lotuta dagoela.

Denbora joan denbora etorri, izan diren gobernuen jarduna behatuta, lortu dugun ikuspegiak erakusten digu hezkuntzaren arduradunek, beren adierazpen eta ekintzetan agerian utzi dutenez, konpromiso iraunkorra daukatela gabezia gehien dituzten pertsonekin, aukera berdintasunarekin, dibertsitatearen arretarekin, integrazioarekin eta, azken finean, ekitatearekin. Konpromiso hau hezkuntza sektorearen gehiengo batek ere beretzat hartu du, erakundeen babesarekin. Azken horren adibide onak dira Euskal AEko Hezkuntza Sistemaren bi ar-

[2] GARCÍA GARRIDO, J. L. (1998): «Hezkuntza sistemen joerak XXI. mendeari begira». Forum Deusto-n: *Hezkuntza*. Bilbo. Deustuko Unibertsitatea. 126. or.

prioritarias establecidas por los dos máximos responsables del sistema educativo en la C.A. de Euskadi en el periodo que abarca este informe.

En su comparecencia ante la Comisión de Educación y Cultura del Parlamento Vasco el 29 de septiembre de 2005[3] el Consejero de Educación, Universidades e Investigación José Antonio Campos, tras hacer referencia a los grandes cambios sociales que afectan al presente y al futuro de la *educación*, y afirmar que «*estimularemos un sistema educativo que iguale las desigualdades de origen de las personas*», formuló los tres ejes fundamentales de su política educativa:

– «Impulsar la calidad de la enseñanza y la educación.

– Dar oportunidades educativas a toda la ciudadanía.

– Abrir la educación a la sociedad».

Quien le sustituyó en el cargo, la Consejera de Educación, Universidades e Investigación Isabel Celaá, al comparecer ante la Comisión de Educación del Parlamento Vasco el 10 de junio de 2009[4] para exponer las líneas generales de actuación de su departamento, tras marcarse como objetivo «*una enseñanza de calidad que apueste por equipar a nuestros niños y jóvenes con el adecuado bagaje de conocimientos, habilidades y valores que exige una sociedad del siglo XXI*», y afirmar asimismo que «*debemos avanzar no sólo en calidad sino también en equidad*», expresó su compromiso con los objetivos educativos europeos, subrayando especialmente dos de ellos:

– *«La lucha contra el abandono escolar prematuro, que tiene que ver con la justicia y equidad del sistema.*

– *Conseguir que un porcentaje mayor de alumnado obtenga una titulación de enseñanza secundaria superior».*

Los ejemplos son suficientes y elocuentes. Igualdad de oportunidades, atención a la diversidad, etc., son términos de un repertorio compartido por los distintos responsables educativos de la C.A. de Euskadi, que sitúa el binomio calidad/equidad en el lugar prioritario de la política educativa. Razones suficientes para dedicarle una atención especial en este informe.

## 1.3. Guía para leer este informe

Los contenidos que se presentan están divididos en cuatro apartados. Primeramente se presenta y analiza la estructura actual del sistema educativo de la C.A. de Euskadi. Se trata de una información de carácter previo pero muy relevante para entender cómo se organiza y ramifica la *educación* en distintos niveles y etapas educativas. Constituye un apartado

[3] PARLAMENTO VASCO, Comisión de Educación y Cultura, VIII Legislatura, Diario de Comisiones (29-09-2005): «Comparecencia del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, a petición propia, para exponer las líneas de actuación de su departamento». Págs. 5, 6, 10 y 11.

[4] PARLAMENTO VASCO, Comisión de Educación, IX Legislatura, Diario de Comisiones (10-06-2009): «Comparecencia de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, a petición propia, para exponer las líneas de actuación de su departamento». Págs. 3 y 4.

duradun gorenek txosten honek aztertzen duen garaian ezarritako ildo nagusiak.

Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura Batzordean 2005eko irailaren 29an egin zuen agerpenean[3], José Antonio Campos Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, *hezkuntzaren* oraina eta etorkizuna baldintzatzen dituzten gizarte aldaketa handiak aipatu zituen, eta adierazi zuen «*pertsonen jatorrizko ezberdintasunak berdintzen dituen hezkuntza sistema bultzatuko*» zutela. Horretarako, bere hezkuntza-politikaren hiru ardatz nagusiak definitu zituen:

– «Irakaskuntzaren eta hezkuntzaren kalitatea bultzatzea.

– Herritar guztiei hezkuntzarako aukerak ematea.

– Hezkuntza gizarteari irekitzea».

Haren atzetik kargua eskuratu zuenak, Isabel Celaá Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean 2009ko ekainaren 10ean agerpena egin zuenean[4] , bere sailaren jardunaren ildo orokorrak aipatzerakoan, bere helburua azaldu zuen: «*kalitatezko hezkuntza izatea, gure umeak eta gazteak XXI. mendeko gizarte batek eskatzen dituen ezagutza, gaitasun eta balio egokiekin hornitzeko gai dena*». Era berean, baieztatu zuen «*kalitatean ez ezik ekitatean egin behar dugula aurrera*». Europako hezkuntzazko helburuekiko konpromisoa azaldu zuen, eta haietako bi azpimarratu zituen:

– *«Eskola behar baino lehen uztearen aurkako borroka, sistema baten justiziarekin eta ekitatearekin zerikusia duena.*

– *Ikasle gehiagok bigarren hezkuntzako goi mailako titulazioa eskuratu dezatela lortzea».*

Adibideak asko eta argigarriak dira. Aukera berdintasuna, dibertsitateari arreta egitea, etab. Euskal AEko hezkuntzako arduradunek konpartitzen dituzten kontzeptuetako batzuk dira. Termino-zerrenda honetan, kalitatea/ekitatea binomioari lehentasuna ematen zaio hezkuntza-politikan. Arrazoi nahikoak ditugu horiei txosten honetan arreta berezia eskaintzeko.

## 1.3. Txosten hau irakurtzeko gida

Aurkeztu nahi ditugun edukiak lau ataletan banatzen dira. Lehenik eta behin Euskal AEko Hezkuntza Sistemaren gaur egungo egitura aurkezten eta aztertzen da. Aldez aurretiko informazioa da, baina oso esanguratsua *hezkuntza* maila bakoitzean eta hezkuntzako etapak nola antolatzen eta banatzen den ulertzeko. Atal hau ez da luzea baina bai erabilgarria.

[3] EUSKO LEGEBILTZARRA, Hezkuntza eta Kultura Batzordea, VIII. Legegintzaldia, Batzordeen Egunkaria (2005-09-29): «Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agerpena, berak eskatuta, bere sailaren jarduketa lerroak azaltzeko». 5, 6, 10 eta 11. or.

[4] EUSKO LEGEBILTZARRA, Hezkuntza Batzordea, IX. Legegintzaldia, Batzordeen Egunkaria (2009-06-10): «Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren agerpena, berak eskatuta, bere sailaren jarduketa lerroak azaltzeko». 3 eta 4. or.

no muy extenso pero útil, en el que se dará cuenta, fundamentalmente, de los cambios que han tenido lugar en el periodo a que se refiere nuestro análisis.

Bertan, batez ere, gure analisiak hartzen duen denboraldian gertatu diren aldaketen berri emango dugu.

En el apartado 3 se aporta una visión panorámica del sistema educativo de la C.A. de Euskadi. No se pretende proporcionar un censo exhaustivo de indicadores. Se han seleccionado algunos de los que consideramos significativos, los imprescindibles para obtener una idea general de la evolución y el estado de la *educación* en el último lustro.

3. atalean, Euskal AEko Hezkuntza Sistemaren ikuspegi panoramikoa dago. Ez dugu adierazleen zerrenda zehatza emateko asmorik. Esanguratsuen irizten diegun batzuk aukeratu ditugu, hau da, azken bost urteetan *hezkuntzaren* eboluzioaren eta egoeraren ideia orokorra jakiteko ezinbestekoak direnak.

En el apartado 4 se reúne un bloque de indicadores específicamente ligados al tratamiento de la igualdad y la equidad en nuestro sistema educativo. Es una opción, dentro de las múltiples perspectivas que pueden adoptarse en el análisis educativo. Una opción que se justifica por la trascendencia que se otorga a estas cuestiones tanto en el ámbito institucional como en la sociedad en general. El apartado 5 está dedicado a las conclusiones.

4. atalean, gure hezkuntza sisteman berdintasunaren eta ekitatearen azterketari berariaz lotuta dauden adierazleen bloke bat dago. Hezkuntzaren analisian izan daitezkeen ikuspegien artean aukera bat da hau. Aukera hau gai hauei erakundeen eremuan nahiz gizartean oro har ematen zaien garrantziarengatik justifikatzen da. 5. atala ondorioentzat da.

La base empírica sobre la que se ha construido este informe se ha obtenido fundamentalmente de Eustat. Complementariamente se han utilizado también datos aportados por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco y el Consejo Escolar de Euskadi. Partiendo de estas referencias, se han elaborado las tablas y gráficos contenidos en el texto.

Txosten hau eraikitzeko oinarri enpirikoa funtsean Eustatetik eskuratu da. Modu osagarrian Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Euskadiko Eskola Kontseiluak emandako datuak ere erabili dira. Erreferentzia horietatik abiatuta, testu honetan dauden taulak eta grafikoak egin dira.

*La organización de las enseñanzas en el sistema educativo de la C.A. de Euskadi*

1

***Irakaskuntzen antolaketa Euskal AEko Hezkuntza Sisteman***




**Iturria: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.**
Fuente: Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco.

Históricamente, el sistema educativo ha estado integrado por dos grandes ámbitos de referencia: el no-universitario y el universitario. Centrándonos en la época reciente, la organización de las enseñanzas no universitarias se modificó significativamente en la década de los noventa del pasado siglo, mientras que el ámbito universitario ha iniciado a partir del año 2008 un proceso de transformación en el que todavía está inmerso.

Fruto de unas y otras reformas el sistema educativo de la C.A. de Euskadi está hoy día organizado como muestra el gráfico 1.

## 2.1. Ámbito no universitario

En lo que se refiere a las enseñanzas de régimen general, comprende los niveles de educación infantil, primaria y secundaria. La educación infantil está dividida en dos ciclos en los que se escolariza el alumnado entre 0 y 6 años. La educación primaria ocupa el tramo de edad entre los 6 y los 12 años, y la educación secundaria entre los 12 y los 18 años. En este último nivel puede distinguirse entre educación secundaria obligatoria (12-16) y educación secundaria postobligatoria que comprende a su vez bachillerato y ciclos formativos de grado medio de formación profesional. Los ciclos formativos de grado superior de formación profesional se consideran educación postobligatoria superior pero no tienen rango de enseñanza universitaria.

Por tanto, la educación obligatoria se extiende desde los 6 a los 16 años, es decir, comprende los niveles de educación primaria y educación secundaria obligatoria. Formalmente, la estructura del sistema educativo no universitario no ha sufrido variaciones desde la reforma que extendió la enseñanza obligatoria hasta los 16 años.[5] Ahora bien, en el periodo que abarca este informe es necesario destacar la evolución de la escolarización en el primer ciclo de educación infantil, y más en concreto en el tramo de edad 0-2 años.

La creación del Consorcio Haurreskolak para «*la gestión de las escuelas infantiles y la atención asistencial y educativa a menores de tres años*», ha procurado un gran impulso a la escolarización temprana en nuestra Comunidad.

Por un lado, ha significado un incremento sustancial de la oferta y consecuentemente del alumnado matriculado, cuestión que puede comprobarse en la comparativa que muestra la tabla 1. El alumnado total matriculado se ha incrementado en un 24,5%, y la tendencia al alza se ha producido en todas las edades.

Historikoki, hezkuntza sistemak erreferentziazko bi eremu eduki ditu: unibertsitatez kanpokoa eta unibertsitatekoa. Azken boladan aztertzen badugu, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzen antolaketak moldaketa handia jasan zuen joan den mendeko laurogeita hamarreko hamarkadan. Unibertsitatearen eremuak, berriz, 2008. urtetik aurrera eraldaketa prozesu bat hasi du eta oraindik ere horretan murgilduta dago.

Erreforma batzuen eta besteen ondorioz, Euskal AEko Hezkuntza Sistema gaur egun 1. grafikoan azaltzen den moduan antolatuta dago.

## 2.1. Unibertsitatez kanpoko eremua

Araubide orokorreko irakaskuntzei dagokienez, haur, lehen eta bigarren hezkuntzako mailak daude. Haur hezkuntzak bi ziklo dauzka: horietan, 0 eta 6 urte arteko ikasleak eskolatzen dira. Lehen hezkuntzak 6 eta 12 urte arteko adin-tartea hartzen du, eta bigarren hezkuntzak 12 eta 18 urte artekoa. Azken maila horretan, derrigorrezko bigarren hezkuntza (12-16) eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa bereiztu behar ditugu. Azken horretan, batxilergoa eta lanbide heziketako maila ertaineko prestakuntza zikloak sartzen dira. Lanbide heziketako goi mailako prestakuntza zikloak nahitaezko hezkuntzaren ondoko goi mailako hezkuntzatzat jotzen dira, baina ez dute unibertsitate izaerarik.

Horrenbestez, nahitaezko hezkuntza 6 eta 16 urte artekoa da. Hau da, lehen hezkuntza eta derrigorrezko bigarren hezkuntza hartzen ditu barruan. Formalki, unibertsitatekoa ez den hezkuntza sistemaren egiturak ez du aldaketarik jasan, nahitaezko hezkuntza 16 urtetara arte luzatu zuen erreforma egin zenetik.[5] Hala eta guztiz ere, txosten honek aztertzen duen denboraldian, haur hezkuntzako lehenengo zikloan eskolatzearen bilakaera nabarmendu beharra dago, zehazki, 0 eta 2 urte arteko tartean.

Haurreskolak Partzuergoaren sorrerak, «*haur eskolak kudeatzeko eta hiru urtetik beherako haurrei laguntza eta hezkuntza emateko*», bultzada handia eman dio eskolatze goiztiarrari gure erkidegoan.

Batetik, eskaintzaren funtsezko gehikuntza ekarri du eta horrenbestez matrikulatutako ikasleak ugaritu dira. Hori 1. taulan ikus daiteke. Matrikulatu diren ikasleen kopuru osoa % 24,5 gehitu da, eta goranzko joera adin guztietan gertatu da.

*Alumnado entre 0-2 años matriculado. C.A. de Euskadi*

1

***Matrikulatutako 0 eta 2 urte arteko ikasleak. Euskal AE***

| **Adina /** Edad | **2005/06** | **2010/11** | **Aldea /** Diferencia |
|---|---|---|---|
| 0-1 | 2.812 | 4.098 | + 1.286 |
| 1-2 | 6.200 | 9.051 | + 2.851 |
| 2-3 | 17.467 | 19.807 | + 2.340 |
| **Guztira /** Total | **26.479** | **32.956** | **+ 6.477** |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Haurreskolak Partzuergoa. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Consorcio Haurreskolak. Elaboración propia.

[5] La LOGSE fue la ley que consagró la extensión de la escolarización hasta los 16 años y comenzó a aplicarse en 1993.

[5] LOGSEk 16 urtera arteko eskolatzea ezarri zuen, eta 1993. urtean hasi zen aplikatzen.

Por otro lado, se ha producido una ordenación de la oferta, que incluye en la actualidad cuatro tipos de centro con distinto grado de extensión e implantación. En la tabla 2 puede verse la situación en el curso 2010/11, diferenciando por tipo de centro y tramo de edad.

Beste alde batetik, eskaintza antolatu da. Eskaintzaren barruan lau ikastetxe mota sartzen dira gaur egun, hedapen eta ezarpen maila ezberdinekin. 2. taulan, 2010/11 ikasturteko egoera ikus daiteke, ikastetxe mota eta adin-tartea kontuan izanik.

*Alumnado entre 0-2 años matriculado según tipo de centro y tramo de edad. C.A. de Euskadi. 2010/11*

2

***Matrikulatutako 0 eta 2 urte arteko ikasleak, ikastetxe motaren eta adin-tartearen arabera. Euskal AE. 2010/11***

| **Adina /** Edad | **Udalarenak** Municipales | **Ikastetxe publikoak (*)** Centros públicos | **Haurreskolak Partzuergoa** Consorcio Haurreskolak | **Ikastetxe pribatuak** Centros privados | **Guztira** Total |
|---|---|---|---|---|---|
| 0 | 359 | 12 | 1.770 | 1.957 | 4.098 |
| 1 | 786 | 20 | 3.653 | 4.592 | 9.051 |
| 2 | 813 | 10.333 | 83 | 8.578 | 19.807 |
| **Guztira /** Total | **1.958** | **10.365** | **5.506** | **15.127** | **32.956** |

**(*) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak.**
Dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Haurreskolak Partzuergoa. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Consorcio Haurreskolak. Elaboración propia.

La tendencia lleva a una disminución de las escuelas municipales mientras se incrementa el peso de los centros dependientes del Consorcio Haurreskolak. Se observa también la distinta especialización según el tipo de centro y tramo de edad. Así, mientras que el Consorcio Haurreskolak está más claramente especializado en los tramos 0-1 y 1-2, los centros públicos y privados absorben la mayor parte de la población escolarizada en el tramo 2-3 años.

Joerak udal eskolak gutxitzea ekarri du, eta Haurreskolak Partzuergoaren mendeko zentroen pisua gehitzea. Era berean ikastetxe motaren eta adin-tartearen arabera espezializazio ezberdinak daude. Horrela, batetik, Haurreskolak Partzuergoa 0-1 eta 1-2 adin-tarteetan espezializatuta dago, eta zentro publiko eta pribatuek, bestetik, 2-3 urteko ume eskolaturik gehienak bereganatzen dituzte.

En definitiva, en el ámbito no universitario, el primer ciclo de educación infantil es posiblemente la etapa que, desde el punto de vista de la estructura general del sistema educativo de la C.A. de Euskadi, más cambios evidencia en el periodo que abarca este informe. Es más, el nivel de escolarización a la edad de dos años es ya prácticamente universal lo que supone una anticipación de cuatro años con respecto a la edad de comienzo de la escolarización obligatoria, los seis años.

Finean, unibertsitatetik kanpoko eremuan, haur hezkuntzako lehenengo zikloa da txosten honek hartzen duen denboraldian aldaketa gehien jasan duena, Euskal AEko Hezkuntza Sistemaren egitura orokorraren ikuspegitik behintzat. Are gehiago, bi urteko umeen eskolatze maila ia unibertsala da gaur egun. Horrek esan nahi du nahitaezko hezkuntza hasteko adina (sei urte) baino lau urte lehenago eskolatzen direla haurrak.

En cuanto a las enseñanzas de régimen especial, como puede apreciarse en el gráfico 1, incluyen estudios de música, danza, artes plásticas y diseño, y escuelas de idiomas. En cualquier caso, los datos del ámbito no universitario que contiene este informe se refieren, siempre y exclusivamente, a las enseñanzas de régimen general.

Araubide bereziko irakaskuntzei dagokienez, 1. grafikoan ikusten denez, musika, dantza, arte plastikoak eta diseinua, eta hizkuntz eskolak sartzen dira. Nolanahi ere, txosten honetan dauden unibertsitatezko kanpoko eremuko datuak araubide orokorreko irakaskuntzei bakarrik dagokie, beti.

## 2.2. Ámbito universitario

Los estudios universitarios han conocido una notable modificación con la aplicación de lo que se ha conocido como el *Proceso de Bolonia*.[6] En lo que hace a su estructura, cabe distinguir entre el grado, el máster y el doctorado. Dicho de otra manera, entre el grado y el postgrado. El grado tiene una duración de cuatro años y pasa a sustituir a las licenciaturas

## 2.2. Unibertsitateko eremua

Unibertsitate ikasketek aldaketa nabarmena jasan dute *Bolognako Prozesua* deritzonaren aplikazioaren ondorioz.[6] Egiturari dagokionez, gradua, masterra eta doktoregoa bereiztu behar ditugu. Beste modu batera esateko, gradua eta gradu ondokoa. Graduak lau urteko iraupena dauka eta lizentziaturak eta diplomaturak ordezkatzen ditu. Masterra ikastaro es-

6 Además de los cambios de estructura de las enseñanzas universitarias, el *Proceso de Bolonia* establece también un sistema de créditos común (ECTS) a todo el Espacio Europeo de Educación Superior.

6 Unibertsitateko irakaskuntzen egituran aldaketak sartu ez ezik, *Bolognako Prozesuak* kredituen sistema komuna (ECTS) finkatu du Goi Mailako Hezkuntzako Europako Eremu osoarentzat.

y diplomaturas. El máster es un curso más especializado que puede tener una duración de uno o dos años. Para cursar un máster (estudios de postgrado) es necesario haber obtenido previamente un título de grado. Para cursar los estudios de doctorado es necesario poseer un título de máster oficial.

El *Proceso de Bolonia* ha traído también la reforma de los planes de estudios de nuestras universidades, reforma que ha afectado tanto a la duración de los estudios como a los contenidos de las diversas titulaciones. Como puede constatarse en la tabla 3, en el curso 2011/12 están ya implantados noventa y ocho grados[7] en las tres universidades de la C.A. de Euskadi. Conviene señalar al respecto que los datos contenidos en este informe se refieren siempre a la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea, la Universidad de Deusto y Mondragón Unibertsitatea, salvo aclaración explícita en el propio texto.

pezializatuagoa da eta urte bat edo bi iraun ditzake. Masterra ikasteko (gradu ondoko ikasketak) ezinbestekoa da aurretik graduko titulu bat eskuratu izana. Doktoregoko ikasketak egiteko, master titulu ofiziala eduki behar da.

*Bolognako Prozesuak* gure unibertsitateetako ikasketa planak erreformatzea ekarri du. Erreforma horrek ikasketen iraupenean eta titulazioen edukietan izan du eragina. 3. taulan ikusten denez, 2011/12 ikasturtean dagoeneko laurogeita hamazortzi gradu[7] finkatu dira Euskal AEko hiru unibertsitateetan. Horri buruz esan behar dugu txosten honetan dauden datuak Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea unibertsitateei dagozkiela, testuan bertan kontrakorik adierazten ez bada.

*Titulaciones de grado ofertadas en las tres universidades de la C.A. de Euskadi. 2011/12*

3

***Euskal AEko hiru unibertsitateetan eskaintzen diren graduko titulazioak. 2011/12***

| **Unibertsitateak /** Universidades | **Kopurua /** Número |
|---|---|
| **Euskal Herriko Unibertsitatea /** Universidad del País Vasco | 68 |
| **Deustuko Unibertsitatea /** Universidad de Deusto | 18 |
| **Mondragon Unibertsitatea /** Mondragón Unibertsitatea | 12 |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

Como es lógico, dado su tamaño y extensión territorial, la UPV/EHU es la universidad que más titulaciones ofrece y como se va a poder apreciar en la tabla 4, la universidad cuya oferta cubre todos los campos de especialización propios del ámbito universitario. A tenor de los datos contenidos en dicha tabla, puede afirmarse que la UPV/EHU ocupa una posición de monopolio de oferta en los ámbitos de ciencias y de ciencias de la salud. La Universidad de Deusto, cuyas titulaciones han estado tradicionalmente vinculadas a los ámbitos humanístico y social, ha incorporado una oferta bastante diversificada en el campo de la ingeniería. Por último, Mondragón Unibertsitatea es una universidad con una notable especialización precisamente en el campo de la ingeniería, que complementa con nuevas ofertas en los ámbitos humanístico y social.

Noski, UPV/EHU, bere tamaina eta lurralde-hedapena direla-eta, titulaziorik gehien eskaintzen duen unibertsitatea da. 4. taulan ikusiko dugunez, unibertsitate honen eskaintzak unibertsitate eremuko berezko espezializazio eremu guztiak asebetetzen ditu. Taula horretan dauden datuak ikusita, esan dezakegu UPV/EHUk eskaintzaren monopolioa daukala zientzien eta osasunaren zientzien eremuetan. Deustuko Unibertsitatearen titulazioak humanitateei eta gizarte ikasketei lotuta egon dira tradizionalki, baina ingeniaritzaren eremuan eskaintza nahiko dibertsifikatua atera du. Azkenik, Mondragon Unibertsitatea ingeniaritzaren eremuan espezializazio handia duen unibertsitatea da, eta horrez gain humanitateen eta gizarte zientzien eremuetan eskaintza berriak dauzka.

[7] Se trata de grados diferentes en cada una de las universidades. Ello quiere decir que algunos de esos grados son impartidos por una misma universidad en más de un centro o territorio, pero no se han duplicado en la tabla.

[7] Unibertsitate bakoitzean gradu ezberdinak dira. Horrek esan nahi du gradu horietako batzuk unibertsitate berak ikastegi edo lurralde bat baino gehiagotan eskaintzen dituela, baina taulan ez dira bikoiztu.

| **Unibertsitateak** Universidades | **Arteak eta Humanitateak** Artes y Humanidades | **Zientziak** Ciencias | **Osasunaren zientziak** Ciencias de la Salud | **Gizarte eta Lege zientziak** Ciencias Sociales y Jurídicas | **Ingeniaritza eta Arkitektura** Ingeniería y Arquitectura | **Guztira** Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Euskal Herriko Unibertsitatea** Universidad del País Vasco | 10 | 9 | 7 | 22 | 20 | **68** |
| **Deustuko Unibertsitatea** Universidad de Deusto | 4 | 0 | 0 | 8 | 6 | **18** |
| **Mondragon Unibertsitatea** Mondragón Unibertsitatea | 1 | 0 | 0 | 5 | 6 | **12** |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

Así pues, en el periodo considerado, la estructura universitaria ha conocido variaciones de calado sustituyendo las antiguas diplomaturas y licenciaturas por los nuevos grados, y reforzando las enseñanzas de postgrado.

Horrela, bada, aztertu dugun denboraldian, unibertsitatearen egiturak aldaketa sakonak jasan ditu, antzinako diplomaturak eta lizentziaturak gradu berriekin ordezkatuz eta gradu ondoko irakaskuntzak sendotuz.

# 3. PANORÁMICA DEL SISTEMA EDUCATIVO DE LA C.A. DE EUSKADI

## 3.1. Evolución del alumnado

En este apartado vamos a considerar distintos indicadores en relación al alumnado. Partiendo de los datos de evolución general y territorial, nos detendremos también en el análisis de su distribución por redes (pública-privada), niveles y ámbitos educativos, sexo, especialización y opciones lingüísticas.

### 3.1.1. *Evolución general*

El alumnado total matriculado crece ligeramente a lo largo del periodo. Ahora bien, este comportamiento general tiene distinta manifestación según se considere el ámbito no universitario o el universitario.

# 3. EUSKAL AEko HEZKUNTZA SISTEMAREN IKUSPEGIA

## 3.1. Ikasleen bilakaera

Atal honetan ikasleei buruzko zenbait adierazle hartuko ditugu kontuan. Eboluzio orokorreko eta lurralde-eboluzioko datuak kontuan izanik, hezkuntza beste faktore batzuen arabera aztertuko dugu: sareak (publikoa-pribatua), hezkuntza mailak eta eremuak, sexua, espezializazioa eta hizkuntz aukerak.

### 3.1.1. *Bilakaera orokorra*

Matrikulatu den ikasle kopuru osoa apur bat gehitu da denboraldi honetan. Ordea, portaera orokor honek adierazpen ezberdina dauka unibertsitatez kanpoko eremuan edo unibertsitateko eremuan.

*Evolución del alumnado total matriculado según la red de escolarización. Sistema educativo de la C.A. de Euskadi*

**5**

***Matrikulatutako ikasle kopuru osoaren bilakaera eskolatze sarearen arabera. Euskal AEko hezkuntza sistema***

| | 2006/07 | 2007/08 | 2008/09 | 2009/10 |
|---|---|---|---|---|
| **Guztira /** Total | **370.244** | **373.431** | **377.017** | **384.818** |
| **Unibertsitatez kanpokoa* /** No Universitario* | | | | |
| **Publikoa /** Público | 153.626 | 157.057 | 160.782 | 166.424 |
| **Pribatua /** Privado | 160.552 | 162.398 | 164.345 | 166.431 |
| **Guztira /** Total | **314.178** | **319.455** | **325.127** | **332.855** |
| **Unibertsitatekoa** /** Universitario** | | | | |
| **Deustu /** Deusto | 8.133 | 7.593 | 7.020 | 7.099 |
| **UPV/EHU /** UPV/EHU | 44.653 | 43.199 | 42.085 | 42.151 |
| **Mondragon /** Mondragón | 3.280 | 3.184 | 2.785 | 2.713 |
| **Guztira /** Total | **56.066** | **53.976** | **51.890** | **51.963** |

*** Hauek sartzen dira hemen: Haur Hezkuntza; Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; Batxilergoa; Lanbide Heziketa.**
Incluye: Educación Infantil; Educación Primaria; Educación Secundaria Obligatoria; Bachillerato; Formación Profesional.
**** Gradu ondoko ikasleak ez dira hemen sartzen.**
No incluye alumnado de postgrado.

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

Así, mientras que el ámbito no universitario absorbe todo el incremento del periodo, en el ámbito universitario el balance es negativo. De hecho, si el incremento general es aproximadamente de un 4%, en el ámbito no universitario este porcentaje se eleva hasta el 6%. Este diferencial se debe al distinto impacto de la evolución de la tasa de natalidad en los dos ámbitos del sistema educativo de la C.A. de Euskadi.

En cuanto a la distribución territorial del alumnado, en el ámbito no universitario y en el curso 2009/10, Bizkaia concentra el 51% de los matriculados, Gipuzkoa el 34% y Álava el 15%. Sin embargo, en términos relativos, el incremento experimentado a lo largo del periodo ha sido mayor en Álava (7,6%) y Gipuzkoa (7%), que en Bizkaia (4,8%). El gráfico 2 informa de esta evolución.

Por lo que respecta a la universidad, los porcentajes en cuanto a la distribución territorial del alumnado son muy similares

Horrela, unibertsitatez kanpoko eremuak denboraldiko gehikuntza osoa bereganatzen duen bitartean, unibertsitateko eremuan balantzea negatiboa da. Hain zuzen ere, hazkuntza orokorra % 4 ingurukoa bada, unibertsitatez kanpoko eremuan portzentaje hori % 6raino gehitzen da. Ezberdintasun hori jaiotza-tasaren bilakaerak Euskal AEko Hezkuntza Sistemaren bi eremuetan daukan eragina ezberdina izatearen ondorio da.

Ikasleen lurralde-banaketari dagokionez, unibertsitatez kanpoko eremuan eta 2009/10 ikasturtean, Bizkaiak matrikulatuen % 51 hartzen ditu, Gipuzkoak % 34 eta Arabak % 15. Aitzitik, termino erlatiboetan, denboraldian zehar izan den gehikuntza handiagoa izan da Araban (% 7,6) eta Gipuzkoan (% 7) Bizkaian baino (% 4,8). 2. grafikoak eboluzio horren berri ematen digu.

Unibertsitateari dagokionez, ikasleen lurralde-banaketaren portzentajeak unibertsitatez kanpoko eremuaren portzenta-

a los del ámbito no universitario. Es algo mayor el peso de Bizkaia (55%), por el 31% de Gipuzkoa y el 14% de Álava. Al respecto, la implantación en los tres territorios de la UPV/EHU resulta determinante puesto que el territorio de influencia de Mondragón Unibertsitatea es Gipuzkoa, mientras que la mayor parte del alumnado de la Universidad de Deusto cursa sus estudios en Bizkaia.

jeen oso antzekoak dira. Bizkaiaren pisua apur bat handiagoa da (% 55), Gipuzkoarena % 31 da eta Arabarena % 14. Horri dagokionez, UPV/EHUko hiru lurraldetako ezarpena esanguratsua da, Mondragon Unibertsitatearen eraginpeko lurraldea Gipuzkoa delako. Deustuko Unibertsitateko ikaslerik gehienek, berriz, Bizkaian ikasten dute.

*Evolución del alumnado total matriculado según Territorio Histórico. Ámbito no universitario*

2

***Matrikulatutako ikasleen bilakaera, lurralde historikoaren arabera. Unibertsitatez kanpoko eremua***




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

### 3.1.2. *Red de escolarización, niveles y ámbitos educativos*

La evolución de la distribución del alumnado según la red de escolarización muestra una situación general ligeramente favorable al sistema público, aunque este estado de cosas varía determinantemente según el ámbito que se considere. Por una parte, en el ámbito universitario y de manera constante a lo largo del periodo analizado, ocho de cada diez estudiantes cursan sus estudios en la universidad pública. Algo lógico teniendo en cuenta la extensión y diversificación de la oferta de titulaciones de la UPV/EHU.

Sin embargo, en el ámbito no universitario, el tradicional equilibrio entre una y otra red educativa sigue siendo una característica diferencial de nuestro sistema educativo. Un equilibrio que quedó establecido hace ya casi veinte años con motivo del Pacto Escolar que postulaba el mantenimiento de los porcentajes de escolarización de las dos redes educativas y planteaba un conjunto de medidas para asegurar el cumplimiento de dicha disposición. La tabla 6 da cuenta de los porcentajes de participación de cada red a lo largo del periodo que se está analizando.

### 3.1.2. *Eskolatze sarea, mailak eta hezkuntza-eremuak*

Ikasleen banaketaren bilakaerak, eskolatze sarearen arabera, sistema publikoaren aldeko egoera erakusten du (aldea handia ez bada ere). Halere, eremuaren arabera aldatzen da. Batetik, unibertsitatearen eremuan, aztertutako denboraldian modu iraunkorrean, hamar ikasletik zortzik unibertsitate publikoan ikasten dute. Hori logikoa da UPV/EHUren titulazioen eskaintzaren hedapena eta dibertsifikazioa kontuan izanik.

Halere, unibertsitatez kanpoko eremuan, hezkuntza sare batearen eta bestearen oreka tradizionala gure hezkuntza sistemaren ezaugarri bereizlea da oraindik ere. Oreka hori orain hogei urte finkatu zen, Eskola Itunaren bitartez. Itun horrek hezkuntzako bi sareen eskolatze portzentajeei eustea proposatzen duen, eta hori betetzen zela bermatzeko zenbait neurri planteatu zituen. 6. taulak sare bakoitzaren parte hartze portzentajeak erakusten ditu, aztertu dugun denboraldian.

*Alumnado según la red de escolarización. C.A. de Euskadi (%)*

6

***Ikasleak, eskolatze sarearen arabera. Euskal AE (%)***

| | 2006/07 | 2007/08 | 2008/09 | 2009/10 |
|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatez kanpokoa* /** No Universitario* | | | | |
| **Publikoa /** Público | 49 | 49 | 49 | 50 |
| **Pribatua /** Privado | 51 | 51 | 51 | 50 |
| **Guztira /** Total | 100 | 100 | 100 | 100 |
| **Unibertsitatekoa /** Universitario | | | | |
| **Publikoa /** Público | 78 | 79 | 80 | 80 |
| **Pribatua /** Privado | 22 | 21 | 20 | 20 |
| **Guztira /** Total | 100 | 100 | 100 | 100 |
| **Euskal AEko hezkuntza sistema /** Sistema educativo de la C.A. de Euskadi | | | | |
| **Publikoa /** Público | 54 | 54 | 54 | 54 |
| **Pribatua /** Privado | 46 | 46 | 46 | 46 |
| **Guztira /** Total | 100 | 100 | 100 | 100 |

*** Hauek sartzen dira hemen: Haur Hezkuntza; Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; Batxilergoa; Lanbide Heziketa.**
Incluye: Educación Infantil; Educación Primaria; Educación Secundaria Obligatoria; Bachillerato; Formación Profesional.

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

Sin embargo, como muestra la tabla 7, este equilibrio general característico del ámbito no universitario sufre algunas variaciones según sea el nivel educativo que se considere. Al respecto, puede afirmarse que desde la finalización del proceso de Reforma Educativa derivado de la LOGSE se han ido estabilizando un conjunto de tendencias que pueden resumirse como sigue:

– En los niveles de infantil y primaria, es decir, en la base del sistema educativo, la distribución del alumnado entre una y otra red es muy homogénea y constante a lo largo del periodo considerado. En general, la red pública escolariza un mayor porcentaje de alumnado en las poblaciones de pequeño y mediano tamaño, mientras que la red privada tiene mayor presencia en los núcleos de mayor tamaño.

– En el nivel de enseñanza secundaria obligatoria, desde la implantación de la LOGSE, la red privada ha escolarizado un mayor número de estudiantes, situación que tiende a mantenerse en el periodo analizado. La gratuidad de esta etapa explica, en gran medida, esa evolución.

– También coincidiendo con la implantación de la LOGSE la red privada mejoró notablemente su cuota de participación en el nivel de bachillerato, al reducirse este tramo educativo de cuatro a dos años. La situación prácticamente no ha variado en el periodo analizado.

– En el nivel de formación profesional se aprecian también diferencias según nos refiramos a la escolarización en ciclos formativos de grado medio o de grado superior. El equilibrio en este último nivel es mayor, mientras que el alumnado escolarizado en grado medio es siempre más numeroso en la red pública.

Aitzitik, 7. taulak erakusten duenez, unibertsitatez kanpoko eremuaren ezaugarri den oreka orokor horrek zenbait aldakuntza jasan ditu, kontuan hartzen dugun hezkuntza mailaren arabera. Horri buruz, esan dezakegu LOGSEren ondoriozko hezkuntzaren erreforma prozesua amaitu zenetik zenbait joera egonkortu direla. Joera horiek honela laburbil ditzakegu:

– Haur eta lehen hezkuntzako mailetan, hau da, hezkuntza sistemaren oinarrian, ikasleen banaketa sare bataren eta bestearen artean oso homogeneoa eta iraunkorra da aztertu dugun denboraldian. Oro har, sare publikoak ikasle portzentaje handiagoa eskolatzen du tamaina txiki eta ertaineko udalerrietan. Sare pribatuak, berriz, herrigune handiagoetan presentzia handiagoa dauka.

– Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren mailan, LOGSE ezarri zenetik, sare pribatuan ikasle gehiago eskolatu dira. Egoera hori aztertutako denboraldian mantentzen da. Etapa honen doako izaerak eboluzio hori neurri handi batean azaltzen du.

– Era berean, LOGSEren ezarpenarekin bat etorriz, sare pribatuak batxilergoaren mailan zuen parte hartze kuota nabarmen hobetu zuen, hezkuntzaren tarte hori lau urtetik bi urtetara murriztu zelako. Egoera hori ez da ia aldatu aztertu dugun denboraldian.

– Lanbide heziketaren mailan beste ezberdintasun batzuk ere atzematen dira, maila ertaineko edo goi mailako prestakuntza zikloetako eskolatzeari erreparatzen badiegu. Azken maila horretan oreka handiagoa da. Gradu ertainean eskolatutako ikasleak, aldiz, gehiago dira beti sare publikoan.

*Alumnado según nivel educativo y red de escolarización. Ámbito no universitario. C.A. de Euskadi (%)*

7

***Ikasleak, hezkuntza mailaren eta eskolatze sarearen arabera. Unibertsitatez kanpoko eremua. Euskal AE (%)***

| | 2006/07 | | 2007/08 | | 2008/09 | | 2009/10 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Pub./**Púb. | **Prib./**Priv. | **Pub./**Púb. | **Prib./**Priv. | **Pub./**Púb. | **Prib./**Priv. | **Pub./**Púb. | **Prib./**Priv. |
| **Haur hezkuntza /** Infantil | 51 | 49 | 51 | 49 | 51 | 49 | 52 | 48 |
| **Lehen hezkuntza /** Primaria | 49 | 51 | 49 | 51 | 50 | 50 | 50 | 50 |
| **Derrig. big. /** Secundaria Oblig. | 43 | 57 | 44 | 56 | 45 | 55 | 45 | 55 |
| **Batxilergoa /** Bachillerato | 53 | 47 | 53 | 47 | 52 | 48 | 53 | 47 |
| **LH, gradu ertaina /** F. P. Grado medio | 58 | 42 | 57 | 43 | 58 | 42 | 60 | 40 |
| **LH, goi mailako gradua /** F. P. Grado superior | 49 | 51 | 49 | 51 | 49 | 51 | 52 | 48 |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

Resulta también de interés observar la distribución del alumnado desde la perspectiva del peso relativo de cada nivel educativo. Como refleja la tabla 8, en el ámbito no universitario la mayor parte del alumnado se concentra en los niveles de infantil y primaria. Por otra parte, el conjunto de la enseñanza obligatoria (primaria + ESO) escolariza a lo largo del periodo y de manera constante aproximadamente el 55% del alumnado, mientras que los niveles no obligatorios (infantil + bachillerato + formación profesional) tiende a representar el 45% restante. Las tendencias son bastante estables.

Interesgarria da, halaber, ikasleen banaketa ikustea, hezkuntza maila bakoitzeko pisu erlatiboaren ikuspegitik. 8. taulak erakusten duenez, unibertsitatez kanpoko eremuan, ikaslerik gehienak haur eta lehen hezkuntzako mailetan daude. Bestalde, nahitaezko hezkuntza osoak (lehen hezkuntza + DBH) denboraldi osoan eta modu iraunkorrean ikasle guztien % 55 inguru eskolatzen ditu. Nahitaezkoak ez diren mailetan, berriz, (haur hezkuntza + batxilergoa + lanbide heziketa) gainerakoa, % 45, daude. Joerak nahiko egonkorrak dira.

*Alumnado según los distintos niveles y ámbitos educativos. C.A. de Euskadi (%)*

8

***Ikasleak mailen eta hezkuntza eremuen arabera. Euskal AE (%)***

| | 2006/2007 | 2007/2008 | 2008/2009 | 2009/2010 |
|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatez kanpokoa /** No universitaria | | | | |
| **Haur hezkuntza /** Educación Infantil | 27 | 28 | 28 | 28 |
| **Lehen hezkuntza /** Educación Primaria | 33 | 33 | 34 | 34 |
| **DBH /** E.S.O. | 22 | 22 | 21 | 21 |
| **Batxilergoa /** Bachillerato | 10 | 9 | 9 | 9 |
| **LH, gradu ertaina /** F.P. Grado Medio | 3 | 3 | 3 | 3 |
| **LH, goi gradua /** F.P. Grado Superior | 5 | 5 | 5 | 5 |
| **Guztira /** Total | 100 | 100 | 100 | 100 |
| **Unibertsitatekoa /** Universitaria | | | | |
| **Lizentziatura, Diplomatura, Gradua** Licenciatura, Diplomatura, Grado | 96 | 95 | 94 | 93 |
| **Gradu ondokoa /** Postgrado | 4 | 5 | 6 | 7 |
| **Guztira /** Total | 100 | 100 | 100 | 100 |
| **Euskal AEko hezkuntza sistema /** Sistema educativo de la C.A. de Euskadi | | | | |
| **Unibertsitatez kanpokoa /** No Universitaria | 84 | 85 | 85 | 86 |
| **Unibertsitatekoa /** Universitaria | 16 | 15 | 15 | 14 |
| **Guztira, osorik /** Total General | 100 | 100 | 100 | 100 |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

En el ámbito universitario el aspecto más significativo es el incremento constante del alumnado de postgrado, que ha pasado de representar apenas un 4% del total en el curso 2006/07 a suponer algo más del 7% en el curso 2009/10. Por tanto, en el periodo considerado, el alumnado de postgrado

Unibertsitatearen eremuan, alderdirik esanguratsuena gradu ondoko ikasleen gehikuntza etengabea da. 2006/07 ikasturtean ikasle guztien % 4 eskas zen, eta 2009/10 ikasturtean % 7 baino gehixeago. Horrenbestez, aztertutako denboraldian, gradu ondoko ikasleak % 75 baino gehiago gehitu dira.

se ha incrementado en más de un 75%. Este hecho está sin duda relacionado con la nueva orientación de los estudios universitarios resultante de la implantación del Proceso de Bolonia que ubica la especialización en el ámbito del postgrado y plantea a su vez los estudios de grado de manera más generalista, acortando su duración a cuatro años. Además, este incremento del alumnado de postgrado se observa en todas las universidades del sistema educativo de la C.A. de Euskadi.

Fenomeno horrek, dudarik gabe, Bolognako Prozesuaren ezarpenaren ondorioz unibertsitateko ikasketek duten orientazio berriarekin du zerikusia. Prozesu honek espezializazioa gradu ondoko eremuan kokatzen du eta, aldi berean, graduko ikasketak modu orokorragoan planteatzen ditu, iraupena lau urtetara moztuz. Gainera, gradu ondoko ikasleen gehikuntza hori Euskal AEko Sistema Orokorreko unibertsitate guztietan atzematen da.

### 3.1.3. *Sexo y campo de especialización*

La relación entre el sexo y el tipo de estudios es bastante relevante, fundamentalmente a partir del nivel postobligatorio. Mientras que la distribución de hombres y mujeres en los niveles iniciales del sistema educativo responde sobre todo a cuestiones demográficas, en los niveles postobligatorios y universitarios, dicha distribución está ya condicionada por las opciones del alumnado y, en tal sentido, es plenamente significativa. Todo ello puede observarse en las tablas 9 y 10.

En el ámbito no universitario, en educación infantil y en los niveles correspondientes a la enseñanza obligatoria se aprecia un porcentaje mayor de hombres que de mujeres. Ello puede tener que ver fundamentalmente con las tasas de paro y otros factores aleatorios pero no resulta muy significativo estadísticamente. Sin embargo, los datos relativos a la distribución en los niveles postobligatorios, bachillerato y formación profesional, si se encuadran en un par de tendencias que han de ser subrayadas.

Tal como muestra la tabla 9, seis de cada diez hombres opta por la formación profesional, mientras que las mujeres se decantan en mayor proporción que los hombres por los estudios de bachillerato, lo que en ambos casos viene ocurriendo durante los últimos cursos de forma reiterada. Estas opciones en los niveles postobligatorios anticipan las proporciones que se dan en el ámbito universitario en el que la diferencia entre hombres y mujeres alcanza los diez puntos porcentuales a favor de estas últimas lo que consolida plenamente la tendencia observada en los últimos cursos.

### 3.1.3. *Sexua eta espezializazio-eremua*

Sexuaren eta ikasketa motaren arteko erlazioa nahiko esanguratsua da, batez ere nahitaezko hezkuntzaren ondoko mailatik aurrera. Hezkuntza sistemaren hasierako mailetan, gizonen eta emakumeen banaketa batez ere alderdi demografikoen araberakoa da. Baina derrigorrezko hezkuntzaren ondoko mailan eta unibertsitate mailan, banaketa hori ikasleen aukeren arabera gertatzen da eta, horregatik, oso esanguratsua da. Hori guztia 9 eta 10. tauletan ikus daiteke.

Unibertsitatez kanpoko eremuan, haur hezkuntzan eta nahitaezko hezkuntzaren mailetan, gizonen portzentajea handiagoa da emakumeena baino. Horrek zerikusia izan dezake langabezi tasekin eta ausazko beste faktore batzuekin, baina estatistikoki ez da oso garrantzitsua. Halere, nahitaezko hezkuntzaren ondoko, batxilergoko eta lanbide heziketako mailetan gertatzen den banaketari buruzko datuek joera pare bat erakusten dute, azpimarratu beharko genituzkeenak.

9. taulak erakusten duenez, hamar gizonetik seik lanbide heziketa aukeratzen dute. Emakumeek, aldiz, gizonek baino joera handiagoa dute batxilergoko ikasketak egiteko. Fenomeno hau, bi kasuetan, azken mailetan errepikatzen ari da. Aukera horiek, nahitaezko hezkuntzaren ondoko mailetan, unibertsitate eremuan izaten diren proportzioen aurrerapena dira. Unibertsitatean, izan ere, emakume gehiago dago gizon baino, hamar puntuko aldearekin. Horrek azken mailetan ikusitako joera erabat berresten du.

*Alumnado según sexo y nivel educativo. C.A. de Euskadi. 2009/10 (%)*

**9**

***Ikasleak, sexuaren eta hezkuntza mailaren arabera. Euskal AE (%)***

| | **Gizona /** Hombre | **Emakumea /** Mujer | **Guztira /** Total |
|---|---|---|---|
| **Haur hezkuntza /** Infantil | 52 | 48 | 100 |
| **Lehen hezkuntza /** Primaria | 52 | 48 | 100 |
| **DBH /** ESO | 52 | 48 | 100 |
| **Batxilergoa /** Bachillerato | 48 | 52 | 100 |
| **LH /** FP | 60 | 40 | 100 |
| **Unibertsitatea /** Universidad | 45 | 55 | 100 |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

Resulta también ilustrativa la forma en que el alumnado universitario se distribuye entre los distintos campos de especialización atendiendo al sexo. En términos globales, la tabla 10 muestra que prácticamente cinco de cada diez estudiantes universitarios cursan estudios vinculados a las Ciencias So-

Esanguratsua da ere unibertsitateko ikasleak nola banatzen diren espezializazio eremuetan sexuaren arabera. Oro har, 10. taulak erakusten digu unibertsitateko hamar ikasletik bostek Gizarte eta Lege Zientzien inguruko ikasketak egiten zituztela 2008/09 ikasturtean, eta unibertsitateko hamar ikasle-

ciales y Jurídicas en el curso 2008/09, y que aproximadamente ocho de cada diez estudiantes universitarios se distribuyen entre este campo de especialización y los estudios de ingeniería.

Sin embargo, la distribución por sexos altera los porcentajes citados en el párrafo anterior. Se observa una mayor especialización de los hombres fundamentalmente en el campo de las ingenierías, mientras que prácticamente seis de cada diez mujeres se orienta a las titulaciones del campo de Ciencias Sociales y Jurídicas.

tik zortzi, gutxi gorabehera, espezializazio eremu honen eta ingeniaritzako ikasketen artea banatzen direla.

Halere, sexuen arteko banaketak aurreko paragrafoan aipatutako portzentajeak eraldatzen ditu. Gizonak batez ere ingeniaritzetan gehiago espezializatzen dira. Emakumeetan, berriz, hamarretik ia seik gizarte eta lege zientzietako titulazioetara jotzen dute.

*Peso relativo del alumnado matriculado según sexo y campo de especialización. C.A. de Euskadi. Ámbito Universitario. 2008/09 (%)*

10

***Matrikulatutako ikasleen pisu erlatiboa, sexuaren eta espezializazio eremuaren arabera. Euskal AE. Unibertsitate eremua. 2008/09 (%)***

| | **Gizonak /** Hombres | **Emakumeak /** Mujeres | **Guztira /** Total |
|---|---|---|---|
| **Gizarte eta Lege zientziak /** Ciencias Sociales y Jurídicas | 38 | 57 | 49 |
| **Ingeniaritza eta Arkitektura /** Ingeniería y Arquitectura | 47 | 16 | 30 |
| **Arteak eta Humanitateak /** Artes y Humanidades | 8 | 11 | 9 |
| **Osasunaren zientziak /** Ciencias de la Salud | 3 | 10 | 7 |
| **Zientziak /** Ciencias | 4 | 6 | 5 |
| **GUZTIRA /** TOTAL | 100 | 100 | 100 |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

### 3.1.4. *Distribución por opciones lingüísticas*

La dimensión lingüística aporta otra perspectiva significativa del sistema educativo de la C.A. de Euskadi y también, como sucede en otros casos, la situación es bastante diferente en el ámbito no universitario y en el universitario. Los gráficos 3, 4, 5 y 6 están referidos a la evolución en el ámbito no universitario, mientras que la tabla 11 da cuenta del estado de la cuestión en el ámbito universitario.

Una panorámica general y evolutiva del ámbito no universitario se encuentra en el gráfico 3 que expresa la tendencia seguida en la evolución de la matriculación en los distintos modelos, a saber, la transferencia de alumnado desde el modelo A hacia el modelo D hasta convertir al modelo B en un modelo de transición.

Lo relevante es que en un periodo de 20 años se ha revertido la situación originaria, si se compara la evolución de los modelos A y D. Ahora bien, como es lógico los ritmos y el consecuente impacto que esta tendencia general ha tenido sobre los distintos niveles educativos han sido diferentes, lo cual resulta evidente si se compara la situación en la base (enseñanza infantil) y en la cúpula (bachillerato y formación profesional) del ámbito no universitario.

Los gráficos que se van a mostrar dividen el análisis de la evolución de la matriculación en los distintos modelos lingüísticos considerando, por una parte, la educación infantil, primaria y secundaria obligatoria y, por otra, las enseñanzas no obligatorias (bachillerato y formación profesional). Hay buenas razones para justificar esta diferenciación pero sin duda la más importante es la diferente oferta de modelos que se da en unos y otros niveles. Así, el modelo B que puede cursarse en la educación infantil, primaria y secundaria obligatoria, desaparece en los niveles de bachillerato y formación profe-

### 3.1.4. *Banaketa, hizkuntz aukeren arabera*

Hizkuntzaren aukerak Euskal AEren Hezkuntza Sistemaren beste ikuspegi esanguratsu bat erakusten du. Eta, beste kasu batzuetan gertatzen den bezalaxe, egoera nahiko ezberdina da unibertsitatez kanpoko eremuan eta unibertsitateko eremuan. 3, 4, 5 eta 6. grafikoak unibertsitatez kanpoko eremuaren bilakaerari dagozkio, eta 11. taulak unibertsitatearen eremua azaltzen digu.

3. grafikoan, unibertsitatez kanpoko eremuko ikuspegi orokor eta ebolutiboa ikus dezakegu. Horrek eredu bakoitzeko matrikulazioaren eboluzioan izandako joera azaltzen du, hau da, ikasleak A eredutik D eredura doazela, B eredua trantsizio eredua izateraino.

Esanguratsuena da 20 urtean jatorrizko egoera alderantzikatu dela, A eta D ereduen eboluzioa erkatzen badugu. Halere, logikoa denez, erritmoak eta joera orokor honek hezkuntza maila bakoitzean izan duen eragina ezberdinak izan dira. Hori argi dago unibertsitatez kanpoko eremuko oinarriko egoera (haur hezkuntzakoa) eta goiko mailako egoera (batxilergoa eta lanbide heziketa) erkatzen baditugu.

Erakutsiko ditugun grafikoek hizkuntz eredu bakoitzeko matrikulazioaren bilakaeraren analisia banatzen dute. Batetik, haur, lehen eta derrigorrezko bigarren hezkuntzak, eta bestetik, nahitaezkoak ez diren irakaskuntzak (batxilergoa eta lanbide heziketa) dira bi zatiak. Arrazoi onak ditugu bereizketa hori egiteko baina, zalantzarik gabe, garrantzitsuena maila batzuetan eta besteetan dagoen eredu-eskaintza ezberdina da. Horrela, B eredua, haur, lehen eta derrigorrezko bigarren hezkuntzan ikasi daitekeena, batxilergoko eta lanbide heziketako mailetan desagertzen da. Horrek aldaketa sakona dakar

*Evolución de la matriculación en los distintos modelos lingüísticos. Ámbito no universitario. C.A. de Euskadi (%)*

3

***Hizkuntz ereduetako matrikulazioaren bilakaera. Unibertsitatez kanpoko eremua. Euskal AE (%)***




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

sional, lo cual modifica sustancialmente las opciones del alumnado en la etapa postobligatoria. Particularmente notable es la trayectoria de la formación profesional, un ámbito en el que las tendencias generales se manifiestan a un ritmo muchísimo más lento.

La observación de lo que sucede en la base del sistema educativo resulta especialmente ilustrativa para anticipar la trayectoria que poco a poco irá afectando al conjunto del mismo. Lo cierto es que en su estructuración por modelos lingüísticos el sistema educativo sufre las consecuencias propias del efecto dominó, de tal manera que las opciones que se observan en la base, al consolidarse, van cambiando la composición lingüística de los centros. Por otra parte, los cambios de modelo se producen por lo general en el tránsito de un nivel a otro, pero rara vez suceden dentro del mismo nivel.

En cuanto al análisis más concreto, si como hace el gráfico 4 ponemos en relación la evolución en los niveles de educación infantil, primaria y secundaria obligatoria, pueden extraerse algunas conclusiones:

- La transición desde el modelo A al modelo D se produce a un ritmo bastante similar en los niveles de infantil y primaria, siendo algo más acelerada en la etapa de secundaria obligatoria.

- El modelo B es un modelo de transición, pero mantiene desde hace muchos años una situación prácticamente de estancamiento, más acusada en los niveles de infantil y primaria.

- El hecho de que menos de un 5% del alumnado estudie en modelo A en el nivel de educación infantil anticipa la evolución futura del ámbito no universitario en lo que se refiere a su estructura lingüística.

ikasleek derrigorrezko hezkuntzaren ondoko etapan dauzkaten aukeretan. Bereziki nabarmena da lanbide heziketaren ibilbidea. Eremu horretan, joera orokorrak erritmo askozaz ere motelagoan gertatzen dira.

Hezkuntza sistemaren oinarrian gertatzen dena behatzea bereziki garrantzitsua da, sistema osoan apurka-apurka eragingo duen ibilbideari aurrea hartzeko. Hizkuntz ereduen araberako egituraketan, hezkuntza sistemak «domino-efektuaren» ondorioak pairatzen ditu. Hau da, oinarrian ikusten diren aukerek, finkatzen eta sendotzen direnean, ikastegietako hizkuntz osaera aldatzen dute. Bestalde, eredu aldaketak maila batetik bestera joatean gertatu ohi dira, baina oso gutxitan maila beraren barruan.

Analisi zehatzagoa eginez, 4. grafikoan dakarren bezala haur hezkuntzako, lehen hezkuntzako eta derrigorrezko bigarren hezkuntzako mailetako eboluzioa behatzen badugu, zenbait ondorio atera ditzakegu.

- A eredutik D eredurako trantsizioa antzeko erritmoan gertatzen da haur eta lehen hezkuntzetan. Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren etapan apur bat bizkorragoa da.

- B eredua trantsizio eredua da, baina urte asko dira ez atzera ez aurrera dagoela, batez ere haur eta lehen hezkuntzetan.

- Haur hezkuntzako mailan ikasleen % 5 baino gutxiagok A ereduan ikastea unibertsitatez kanpoko eremuan izango den bilakaeraren aurrerapena da, hizkuntz egiturari dagokionez.

*Evolución de la matriculación en los distintos modelos lingüísticos. Educación Infantil, Primaria y Secundaria Obligatoria. C.A. de Euskadi (%)*

**4**

***Hizkuntz ereduetako matrikulazioaren bilakaera. Haur, lehen eta derrigorrezko bigarren hezkuntza. Euskal AE (%)***




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

La situación es diferente en el tramo correspondiente a las enseñanzas no obligatorias de bachillerato y formación profesional, tal como evidencia el gráfico 5. En cuanto a las opciones de los estudiantes de bachillerato, las alternativas entre uno u otro modelo lingüístico prácticamente se reparten al 50%, si bien es cierto que lo característico de este periodo es, por primera vez en este nivel de enseñanza, la prevalencia del modelo D. Por lo que respecta a la formación profesional, la proporción de alumnado matriculado en modelo D es la más baja del ámbito no universitario.

Egoera ezberdina da batxilergoko eta lanbide heziketako nahitaezkoak ez diren irakaskuntzetan, 5. grafikoan erakusten denez. Batxilergoko ikasleen aukerei dagokienez, hizkuntz eredu bataren eta bestearen arteko alternatibak % 50ean banatzen dira ia-ia. Halere, esan behar dugu denboraldi honen ezaugarri nagusia, irakaskuntza maila honetan behintzat, D eredua nagusitzea dela. Lanbide heziketari dagokionez, D ereduan matrikulatutako ikasleen proportzioa unibertsitatez kanpoko eremuko txikiena da.

*Evolución de la matriculación en los distintos modelos lingüísticos. Bachillerato y Formación Profesional. C.A. de Euskadi (%)*

**5**

***Hizkuntz ereduetako matrikulazioaren bilakaera. Batxilergoa eta lanbide heziketa. Euskal AE (%)***




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

El gráfico 6 muestra finalmente la evolución de la matriculación en los distintos modelos lingüísticos en el conjunto del ámbito no universitario, y da una idea de su variación en el periodo de tiempo que considera este informe.

En ese periodo, el alumnado matriculado en el modelo A ha decrecido en un 4%. Curiosamente, un porcentaje de pérdida superior al que se produce en educación infantil y primaria. Lo que este dato indica es que en los próximos años la pérdida de matrícula en el modelo A se producirá con más intensidad en los niveles de educación secundaria obligatoria y postobligatoria, reproduciendo la tendencia ya observada en la base del sistema educativo.

Por otra parte, el modelo B seguirá constituyendo un modelo de transición, mientras que la trayectoria del modelo A anticipa su progresiva extinción en la base del sistema educativo de la C.A. de Euskadi.

6. grafikoan, azkenik, hizkuntz eredu bakoitzean unibertsitatez kanpoko eremuan izan den matrikulazioaren bilakaera ikus dezakegu, eta txosten honek aintzat hartzen duen denboraldian izandako aldakuntzaren berri ematen digu.

Denboraldi horretan, A ereduan matrikulatutako ikasleak % 4 gutxitu dira. Bitxia bada ere, galera horren portzentajea handiagoa izan da haur eta lehen hezkuntzetan gertatutakoa baino. Datu honek erakusten duena da datozen urteetan A ereduan matrikularen galera modu intentsuagoan gertatuko dela derrigorrezko bigarren hezkuntzaren mailan eta derrigorrezkoaren ondoko mailan, hezkuntza sistemaren oinarrian ikusi dugun joera errepikatuz.

Bestalde, B ereduak trantsizio eredua izaten jarraituko du. A ereduaren ibilbideak, berriz, bere desagerpen mailakatua erakusten du Euskal AEko hezkuntza sistemaren oinarrian.

*Evolución de la matriculación en los distintos modelos lingüísticos. Ámbito no universitario. C.A. de Euskadi (%)*

6

***Hizkuntz ereduetako matrikulazioaren bilakaera. Unibertsitatez kanpoko eremua. Euskal AE (%)***




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

En el ámbito universitario, la evolución del alumnado matriculado en euskera lleva un ritmo más lento. En la tabla 11 se constata que en el periodo analizado el porcentaje de matriculación en euskera ha subido tres puntos. Por una parte, la oferta de titulaciones en euskera dista todavía mucho de ser universal, aun cuando son ya bastantes las titulaciones que pueden cursarse íntegramente en una u otra lengua. Por la otra, en la universidad el criterio lingüístico no es en muchos casos determinante en las opciones del alumnado. Estas últimas están también condicionadas por otros factores electivos. Con respecto a la situación general que refleja la tabla 11 es de destacar el caso de Mondragón Unibertsitatea pues en el año 2009/10 un 90% de sus estudiantes cursaban los estudios en euskera. En todo caso, el hecho de que cuatro de cada diez estudiantes universitarios estén cursando sus estudios en euskera es un dato muy relevante en relación a la extensión de la enseñanza en euskera en la universidad.

Unibertsitatearen eremuan, euskaraz matrikulatutako ikasleen eboluzioak erritmo motelagoa dauka. 11. taulan ikusten da aztertutako denboraldian euskarazko matrikulazio portzentajea hiru puntu gehitu dela. Batetik, euskarazko titulazioen eskaintza oraindik ere unibertsala izatetik urruti dago, nahiz eta dagoeneko titulazio asko hizkuntza batean nahiz bestean oso-osorik ikas daitezkeen. Bestalde, unibertsitatean hizkuntza irizpidea sarritan ez da erabakigarria ikasleen erabakietan. Erabakiak beste faktore batzuek ere baldintzatzen dituzte. 11. taulak erakusten duen egoera orokorrari dagokionez, Mondragon Unibertsitatearen kasua azpimarragarria da: 2009/10 ikasturtean, ikasleen % 90ak euskaraz ikasten dute. Nolanahi ere, unibertsitateko hamar ikasletik lauk euskaraz ikastea oso datu esanguratsua da euskarazko irakaskuntzak unibertsitatean daukan hedadurari buruz.

*Alumnado según la opción lingüística. Ámbito universitario. C.A. de Euskadi (%)*

11

***Ikasleak, hizkuntza aukeraren arabera. Unibertsitateko eremua. Euskal AE (%)***

| | 2006/2007 | 2007/2008 | 2008/2009 | 2009/2010 |
|---|---|---|---|---|
| **Lizentziatura, Diplomatura, Gradua /** Licenciatura, Diplomatura, Grado | | | | |
| **Gaztelaniaz /** Castellano | 64 | 62 | 61 | 61 |
| **Euskaraz /** Euskera | 36 | 38 | 39 | 39 |
| **Guztira /** Total | 100 | 100 | 100 | 100 |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

## 3.2. Centros

En lo que se refiere al número de centros educativos y su distinta especialización, las diferencias son evidentes entre los dos ámbitos del sistema educativo y también en el seno de cada uno de ellos.

En el ámbito no universitario, además de la diferente implantación territorial que se analizará con más detalle en el apartado 4 de este informe, el tipo de centros no es igual según consideremos una u otra red educativa. La tabla 12 muestra que la red pública se caracteriza por una estructura de centros con un alto grado de especialización por niveles educativos, es decir, centros de infantil, de primaria, o de secundaria. En la red pública se da también la particularidad de la existencia de algunos centros de ESO donde se imparte solamente esta etapa educativa.

La composición en la red privada es muy diferente. En primer lugar, prácticamente un centenar de centros tienen la consideración de integrales, es decir, centros en los que pueden desarrollarse toda la trayectoria educativa no universitaria lo cual implica un factor de estabilidad para el alumnado y las familias. En segundo lugar, muchos de los centros combinan la oferta de enseñanzas en educación primaria y secundaria, lo que asegura la continuidad del alumnado en un mismo centro durante todo el periodo de escolarización obligatoria.

## 3.2. Zentroak

Hezkuntza zentroen kopuruari eta haien espezializazioari dagokienez, ezberdintasunak nabariak dira hezkuntza sistemaren bi eremuen artean eta haietako bakoitzaren barruan.

Unibertsitatez kanpoko eremuan, lurralde hedapen ezberdinaz gain (txosten honen 4. atalean xeheago aztertuko duguna), zentro mota ez da berdina hezkuntza sare batean edo bestean. 12. taulak erakusten du sare publikoan zentroen egiturak espezializazio maila handia dagoela hezkuntza mailen arabera, hau da, haur, lehen edo bigarren hezkuntzako zentroak. Sare publikoan ere, DBHko zenbait zentro daude hezkuntza etapa hori bakarrik irakasten dutenak.

Sare pribatuaren osaera oso bestelakoa da. Lehenik eta behin, ia ehun zentrok integral izaera dauka. Hau da, zentro horietan unibertsitatez kanpoko hezkuntzako ibilbide osoa egin daiteke. Horrek egonkortasun faktorea eskaintzen die ikasleei eta familiei. Bigarrenik, zentroetako askok lehen eta bigarren hezkuntzetan irakaskuntzen eskaintza konbinatzen dute. Horrela, ikasleek nahitaezko eskolatze denboraldi osoan zentro berean jarraitzea bermatzen da.

*Centros según los niveles educativos que imparten y la titularidad. Ámbito no universitario. C.A. de Euskadi. 2009/10*

12

***Ikastegiak, eskaintzen dituzten hezkuntza mailen eta titulartasunaren arabera. Unibertsitatez kanpoko eremua. Euskal AE. 2009/10***

| **Zentroak* /** Centros* | **Publikoak /** Públicos | **Pribatuak /** Privados | **Guztira /** Total |
|---|---|---|---|
| **Haur hezkuntza /** Educación Infantil | 223 | 74 | 297 |
| **Lehen hezkuntza /** Educación Primaria | 326 | 13 | 339 |
| **Lehen Hezkuntza eta DBH /** Educación Primaria y ESO | 1 | 101 | 102 |
| **DBH edo batxilergoa edo LH /** ESO o Bachillerato o F. P. | 175 | 64 | 239 |
| **Zentro integrala /** Centro Integral | 1 | 96 | 97 |
| **Guztira /** Total | **726** | **348** | **1.074** |

*** Hezkuntza bereziko zentro espezifikoak eta helduenak ez dira hemen sartu.**
No se incluyen centros específicos de Educación Especial ni de Personas Adultas.

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

El hecho de que el 68% de los centros del ámbito no universitario sean públicos y sin embargo escolaricen a una proporción de alumnos similar a los centros privados, se explica

Unibertsitatez kanpoko eremuko zentroen % 68 publikoak izatea baina eskolatzen dituzten ikasleen kopurua zentro pribatuen kopuruaren antzekoa izatea lurralde-kokapen fisikoa-

fundamentalmente por su distinta ubicación en el territorio, más urbana y capitalina en el caso de la red privada, y ubicada en poblaciones de tamaño pequeño y medio en el caso de la red pública.

ren ondorio da. Izan ere, sare pribatuko ikastetxeak hiri eta hiriburu girokoak izan ohi dira, eta sare publikokoak herri txiki eta ertainetan egoten dira.

En la tabla 13 se aprecia que en el ámbito universitario la cantidad de centros es lógicamente mucho menor y apenas ha variado en el periodo objeto de este análisis. Seis de cada diez centros pertenecen a la UPV/EHU, universidad en la que están también ubicadas más del 50% de las facultades. En términos globales y desde la perspectiva territorial, prácticamente el 50% del total de centros está ubicado en Bizkaia.

13. taulan ikusten da unibertsitatearen eremuko zentroen kopurua askozaz ere txikiagoa dela eta ez dela ia aldatu analisi honek aztertzen duen denboraldian. Hamar ikastegitik sei UPV/EHUkoak dira. Unibertsitate horretan daude, halaber, fakultateen % 50 baino gehiago. Termino globaletan eta lurralde-ikuspegitik, zentro guztien ia % 50 Bizkaian daude.

*Evolución del total de centros según su denominación. Ámbito universitario. C.A. de Euskadi*

13

***Zentro guztien bilakaera, izendapenaren arabera. Unibertsitateko eremua. Euskal AE***

| | 2006/2007 | 2007/2008 | 2008/2009 | 2009/2010 |
|---|---|---|---|---|
| **Eskolak /** Escuelas | 22 | 22 | 22 | 23 |
| **Fakultateak /** Facultades | 25 | 26 | 26 | 28 |
| **Goi mailako eskola teknikoak /** Escuelas Tec. Sup. | 5 | 5 | 5 | 5 |
| **Guztira /** Total | **52** | **53** | **53** | **56** |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

## 3.3. Personal docente

En cuanto al personal docente, en el periodo analizado puede hablarse de una pauta de ligero incremento, siempre por debajo del 10%. Bien es cierto que todo el incremento registrado en el ámbito universitario se ha producido en la UPV/EHU. En todo caso, esta variación no ha modificado prácticamente el peso relativo que cada ámbito representa en el conjunto del profesorado. Así, el profesorado no universitario sigue representando en el curso 2009/10 el 85% del total, porcentaje idéntico al del curso 2006/07. La tabla 14 da cuenta de esa evolución general.

## 3.3. Irakasleak

Irakasleei dagokienez, aztertutako denboraldian gehikuntza txiki bat atzeman daiteke, betiere % 10etik behera. Egia da unibertsitatearen eremuan atzemandako gehikuntza osoa UPV/EHUn gertatu dela. Nolanahi ere, aldakuntza horrek ez du ia aldatu eremu bakoitzak irakaslego osoan daukan pisu erlatiboa. Horrela, unibertsitatez kanpoko irakasleak 2009/10 ikasturtean irakasle guztien % 85 dira, 2006/07 ikasturtean bezalaxe. 14. taula eboluzio orokor hori erakusten digu.

*Personal docente por ámbito educativo. Sistema educativo de la C.A. de Euskadi*

14

***Irakasleak, hezkuntza eremuaren arabera. Euskal AEko hezkuntza sistema***

| | 2006/07 | 2007/08 | 2008/09 | 2009/10 |
|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatez kanpokoa /** No universitario | 31.395 | 32.317 | 33.577 | 33.670 |
| **Unibertsitatekoa /** Universitario | 5.307 | 5.592 | 5.717 | 5.724 |
| **Guztira /** Total | **36.702** | **37.909** | **39.294** | **39.394** |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

Es interesante complementar el análisis con la información contenida en la tabla 15 que se refiere a la distribución del personal docente atendiendo al sexo y a la edad. La consideración de estas dos variables nos da una idea del grado de envejecimiento de las plantillas docentes. En primer lugar, los docentes menores de 30 años son muy pocos. En segundo lugar, aproximadamente tres de cada diez docentes son menores de 40 años. En tercer y último lugar, el tramo que concentra la mayor parte del personal docente va de los 40 a los

Interesgarria da analisi hau 15. taulan dagoen informazioarekin osatzea, irakasleak sexuaren eta adinaren arabera banatzen dituena. Bi aldagai horiek kontuan izaten baditugu, irakasleen zahartze mailaren ideia izango dugu. Hasteko, 30 urtetik beherako irakasleak oso gutxi dira. Bigarrenik, hamar irakasletik hiru 40 urtetik beherakoak dira. Hirugarrenik eta azkenik, irakaslerik gehienak 40 eta 59 urte arteko tartean daude. Unibertsitatez kanpoko eremuan kontzentrazioa handiagoa da. Era berean, 60 urtetik gorako unibertsitateko ira-

59 años, apreciándose una mayor concentración en el ámbito no universitario. Adicionalmente, por encima de 60 años, la población docente universitaria representa el 11% del total debido fundamentalmente a la edad más tardía de jubilación del colectivo docente universitario.

kasleak guztien % 11 dira, batez ere unibertsitateko irakasleak beranduago erretiratzen direlako.

*Personal docente por edad y sexo. C.A. de Euskadi. 2009/10 (%)*

15

***Irakasleak adinaren eta sexuaren arabera. Euskal AE. 2009/10 (%)***

| | ≤ 30 | 30-39 | 40-49 | 50-59 | ≥ 60 | **Guztira** Total |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Unibertsitatez kanpokoa /** No Universitario | | | | | | |
| **Gizonak /** Hombres | 5 | 23 | 35 | 35 | 2 | 100 |
| **Emakumeak /** Mujeres | 7 | 22 | 41 | 29 | 1 | 100 |
| **Guztira /** Total | 6 | 21 | 38 | 32 | 2 | 100 |
| **Unibertsitatekoa /** Universitario | | | | | | |
| **Gizonak /** Hombres | 5 | 16 | 30 | 32 | 16 | 100 |
| **Emakumeak /** Mujeres | 11 | 24 | 33 | 25 | 6 | 100 |
| **Guztira /** Total | 8 | 19 | 32 | 30 | 12 | 100 |

**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

En cuanto a la distribución del personal docente entre una y otra red educativa, en el gráfico 7 puede constatarse que es la red pública la que sigue concentrando el mayor número. Ello se refleja lógicamente en las proporciones relativas aplicadas tanto al ámbito no universitario como al universitario. En el conjunto del sistema educativo más de seis de cada diez docentes trabajan en la red pública, pero la diferencia entre una y otra red es especialmente notable en la universidad debido una vez más al peso de la UPV/EHU en este ámbito educativo.

Irakasleen banaketa hezkuntza sare bataren eta bestearen artean aztertzen badugu, 7. grafikoak erakusten digu sare publikoan daudela gehienak. Hori, noski, unibertsitatez kanpoko eta unibertsitateko eremuetan aplikatutako proportzioetan islatzen da. Hezkuntza sistema osoan, hamar irakasletik sei baino gehiago sare publikoan ari dira, baina sare bataren eta bestearen arteko aldea bereziki nabarmena da unibertsitatean, UPV/EHUk hezkuntza eremu horretan daukan pisuaren eraginez.

*Personal docente por ámbito y titularidad. C.A. de Euskadi. 2009/10 (%)*

7

***Irakasleak eremuaren eta titulartasunaren arabera. Euskal AE. 2009/10 (%)***




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

Por último, la relación entre personal docente y sexo que se aprecia en el gráfico 8 muestra algunas pautas que se manifiestan de forma continuada y que es interesante resaltar:

– En el conjunto del sistema educativo de la C.A. de Euskadi aproximadamente siete de cada diez docentes son mujeres, porcentaje que ha variado escasamente en los últimos cuatro cursos considerados.

– La distribución entre sexos da un resultado muy distinto en función del ámbito considerado. Mientras entre el profesorado no universitario más de siete de cada diez docentes son mujeres, el panorama en la universidad varía pues seis de cada diez docentes universitarios son hombres.

– La presencia de mujeres es mucho mayor cuanto menor es el nivel educativo de referencia. De hecho, como se aprecia en el gráfico 8, se produce una progresión en la presencia de hombres en tanto se asciende en la escala de niveles, partiendo de la educación infantil (más del 90% de docentes son mujeres) hasta llegar a la formación profesional (el porcentaje de docentes mujeres desciende al 40%).

Azkenik, irakasleen eta sexuaren arteko harremanak, 8. grafikoan ikusten denak, etengabe agertzen diren pautetako batzuk erakusten ditu. Interesgarria da horiek azpimarratzea:

– Euskal AEko hezkuntza sistema osoan, hamar irakasletik zazpi, gutxi gorabehera, emakumeak dira. Portzentaje hori gutxi aldatu da aztertutako azken lau ikasturteetan.

– Sexuen arteko banaketak oso emaitza ezberdina dauka kontuan hartutako eremuaren arabera. Unibertsitatez kanpoko irakasleen artean hamar irakasletik zazpi baino gehiago emakumeak dira, baina unibertsitateko egoera ezberdina da, unibertsitateko hamar irakasletik sei gizonak baitira.

– Emakumeen presentzia askozaz ere handiagoa da erreferentziako hezkuntza maila txikiagoa den neurrian. Hain zuzen ere, 8. grafikoan ikusten denez, gizonen presentzian mailaketa bat gertatzen da mailen eskalan gora egin ahala, haur hezkuntzatik abiatuta (irakasleen % 90 baino gehiago emakumeak dira) lanbide heziketara iristeraino (emakumezko irakasleak % 40 dira).

*Personal docente por niveles y sexo. C.A. de Euskadi. 2009/10 (%)*

**8**

***Irakasleak mailaren eta sexuaren arabera. Euskal AE. 2009/10 (%)***




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

## 3.4. Ratio profesor/alumno

En lo que se refiere al ratio profesor/alumno, si se toma como referencia la situación en sistemas educativos de otras Comunidades Autónomas del Estado español el ratio medio en el ámbito no universitario (10,5) sitúa al sistema educativo de la C.A. de Euskadi en la séptima posición. El gráfico 9 muestra la evolución del ratio en nuestra Comunidad.

## 3.4. Irakasle/ikasle ratioa

Irakasle / ikasle ratioari dagokionez, Espainiar estatuko beste autonomi erkidego batzuetako hezkuntza sistemen egoera erreferentziatzat hartuz gero, unibertsitatez kanpoko batez besteko ratioak (10,5) Euskal AEko hezkuntza sistema zazpigarren posizioan kokatzen du. 9. grafikoak ratioak gure erkidegoan izan duen eboluzioa erakusten digu.




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

Si nos fijamos en este gráfico, a tenor de la evolución del ratio en el periodo analizado, podemos subrayar algunas regularidades:

– La pauta general es de estabilidad prácticamente absoluta en la educación básica, una tendencia a la baja constante pero muy poco significativa en la educación secundaria y una bajada más significativa en el ámbito universitario. Hablamos siempre de valores inferiores a un punto porcentual.

– El ratio profesor/alumno más bajo se da durante todo el periodo de referencia en la educación secundaria, en torno a ocho alumnos y alumnas por profesor o profesora.

– En los niveles no universitarios el ratio profesor/alumno es significativamente favorable a la red pública a lo largo del periodo analizado. Especialmente significativo es el diferencial en enseñanza básica.

Grafiko horri erreparatzen badiogu, aztertutako denboraldian ratioak izan duen eboluzioa kontuan izanik, zenbait erregulartasun azpimarra ditzakegu:

– Pauta orokorra ia erabateko egonkortasuna da oinarrizko hezkuntzan, beheranzko joera (etengabea baina txikia) bigarren hezkuntzan eta beherakada esanguratsuagoa unibertsitatean. Betiere ehuneko puntu bat baino balio txikiagoez ari gara.

– Irakasle/ikasle ratiorik txikiena bigarren hezkuntzan dago aztertu dugun denboraldian: zortzi ikasle irakasle bakoitzeko, gutxi gorabehera.

– Unibertsitatez kanpoko mailetan irakasle/ikasle ratioa sare publikoaren aldekoa da, nabarmen, aztertu dugun denboraldian. Bereziki esanguratsua da diferentziala oinarrizko irakaskuntzan.

## 3.5. **Tasas de escolaridad**

Se analizará en este epígrafe las tasas de escolaridad atendiendo a la variable sexo combinada con la edad, y también revisando los distintos niveles educativos. En cuanto a la evolución de la tasa de escolaridad atendiendo al sexo, muestra un comportamiento bastante regular a lo largo del periodo considerado. En la base del sistema la escolarización de hombres y mujeres aporta valores similares, algo que ocurre en el primer y segundo ciclo de educación infantil. El comportamiento es también similar en el tramo de la enseñanza obligatoria (6-16 años), pues los valores en ambos sexos se sitúan en torno al 100% de escolarización.

A partir de los 18 años (enseñanza postobligatoria y universitaria), la tasa de escolarización de las mujeres es mayor que

## 3.5. **Eskolatze tasak**

Epigrafe honetan eskolatze tasak aztertuko ditugu, sexuaren aldagaia adinarekin erkatuz, eta hezkuntza mailak berrikusiz. Eskolatze tasaren bilakaerak, sexuaren arabera, portaera nahiko erregularra dauka aztertu dugun denboraldian zehar. Sistemaren oinarrian, gizonen eta emakumeen eskolatzeak antzeko balioak ematen ditu. Hori haur hezkuntzako lehen eta bigarren zikloetan gertatzen da. Portaera antzekoa da nahitaezko irakaskuntzaren tartean ere (6-16 urte), balioak bi sexuetan eskolatzearen % 100 inguruan baitaude.

18 urtetatik aurrera (derrigorrezko hezkuntzaren ondoko irakaskuntza eta unibertsitateko irakaskuntza) emakumeen es-

la de los hombres en todos los tramos de edad considerados. En postobligatoria, la tasa de escolaridad de las mujeres es superior a la de los hombres en bachillerato e inferior en la formación profesional. En el ámbito universitario la tasa de escolaridad de las mujeres es superior a la de los hombres en valores diferenciales cada vez más significativos. Todo ello lo expresa el gráfico 10.

kolatze tasa handiagoa da gizonena baino aztertu ditugun adin-tarte guztietan. Nahitaezko hezkuntzaren ondoko hezkuntzan, emakumeen eskolatze tasa handiagoa da gizonena baino batxilergoan eta txikiagoa lanbide heziketan. Unibertsitateko eremuan, emakumeen eskolatze tasa handiagoa da gizonena baino, balio diferentzial gero eta esanguratsuagoetan. Hori guztia 10. grafikoan azaltzen da.

*Evolución de la tasa de escolaridad por sexo y tramos de edad. C.A. de Euskadi*

**10**

***Eskolatze tasaren bilakaera, sexuaren eta adin-tarteen arabera. Euskal AE***




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**
Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

La evolución de la tasa de escolaridad atendiendo a los distintos niveles educativos muestra un incremento progresivo en el primer ciclo de educación infantil, mientras la estabilidad es la pauta en los niveles de enseñanza obligatoria. Por otra parte en los niveles postobligatorios la tasa se sitúa por encima del 60% en el bachillerato, muy por encima de la observada en los niveles medio y superior de la formación profesional. En el ámbito universitario la estabilidad es absoluta a lo largo del periodo en los dos tramos de edad considerados. Todo ello lo muestra el gráfico 11.

En general, puede afirmarse que en el periodo analizado la estabilidad es la pauta dominante en lo referente a las tasas de escolaridad si exceptuamos el primer ciclo de educación infantil, cuestión ya apuntada en diversos apartados de este informe.

Eskolatze tasaren eboluzioak, hezkuntza maila ezberdinei begira, gehikuntza mailakatua erakusten du haur hezkuntzako lehen zikloan. Derrigorrezko irakaskuntzako mailetan, berriz, egonkortasuna da pauta nagusia. Bestalde, nahitaezko hezkuntzaren ondoko mailetan, tasa % 60aren gainetik dago batxilergoan, lanbide heziketako erdi eta goi mailetan ikusitakoa baino askozaz ere gorago. Unibertsitatearen eremuan, egonkortasuna erabatekoa da denboraldi osoan zehar, kontuan izan diren bi adin-tarteetan. Hori guztia 11. grafikoan azaltzen da.

Oro har, esan dezakegu aztertutako denboraldian egonkortasuna pauta nagusia dela eskolatze tasei dagokienez, haur hezkuntzako lehenengo zikloa kanpoan utzita. Horren berri eman dugu dagoeneko txosten honetako zenbait ataletan.




**Iturria: Eustat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Geuk egina.**

Fuente: Eustat. Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco. Elaboración propia.

## 4. EQUIDAD EN EL SISTEMA EDUCATIVO DE LA C.A. DE EUSKADI

En este último apartado se va a analizar el sistema educativo de la C.A. de Euskadi desde la óptica de la equidad, la igualdad y la integración, aportando para ello un conjunto de indicadores que se relacionan directamente con la función redistributiva de la *educación*, es decir, con su contribución a mitigar desigualdades de índole diverso, bien sean territoriales, económicas, sociales o culturales.

Los indicadores que hemos seleccionado se presentarán en cinco grandes bloques temáticos: la diversidad y extensión territorial de la oferta; las pautas de integración del alumnado extranjero; la atención a la diversidad; el alumnado becario y el alumnado con edad no idónea.

### 4.1. Acceso a la *educación*: diversidad y extensión territorial de la oferta

La manera en que la oferta educativa esté distribuida por el territorio puede facilitar o dificultar las condiciones de acceso de la ciudadanía a la *educación.* De ahí que la diversificación territorial de la oferta educativa se constituye en un indicador de carácter redistributivo, en tanto puede coadyuvar a lograr un acceso más igualitario a la *educación*. La población de la C.A. de Euskadi se distribuye en 251 municipios, 51 ubicados en Álava, 88 en Gipuzkoa y 112 en Bizkaia. Además, una parte de ella se ubica en municipios de pequeño y mediano tamaño, en algunos casos alejados de los grandes núcleos urbanos.

La estructura territorial es importante pues, en el tiempo presente, el acceso a edad temprana a los servicios educativos constituye cada vez más una prioridad de las familias. Además en esas edades tempranas, donde la dependencia funcional es absoluta, es muy importante la cercanía de la oferta educativa. En este sentido y como puede observarse en la tabla 16, la oferta del Consorcio Haurreskolak en el primer ciclo de educación infantil cubre un número relevante de municipios.

## 4. EUSKAL AEko HEZKUNTZA SISTEMAREN EKITATEA

Azken atal honetan, Euskal AEren hezkuntza sistema ekitatearen, berdintasunaren eta integrazioaren ikuspegietatik aztertuko dugu. Horretarako, *hezkuntzaren* funtzio birbanatzailearekin zuzenean erlazionatzen diren adierazle batzuk eskainiko ditugu, hau da, modu askotako desberdintasunak (lurraldekoak, ekonomikoak, sozialak edo kulturalak) murrizten dituzten adierazleak.

Aztertu ditugun adierazleak bost bloke handitan sailkatu ditugu, gaiaren arabera: eskaintzaren dibertsitatea eta lurralde-hedapena; ikasle atzerritarren integrazio pautak; dibertsitatearen arreta; bekadun ikasleak; eta adin egokia ez duten ikasleak.

### 4.1. *Hezkuntza* eskuratzea: eskaintzaren dibertsitatea eta lurralde-hedapena

Hezkuntzako eskaintza lurraldean zehar banatzeko moduak herritarrek *hezkuntza* eskuratzeko baldintzak erraztu edo zaildu ahal ditu. Horregatik, hezkuntza eskaintzaren lurralde-dibertsifikazioa izaera birbanatzaileko adierazlea da, hezkuntza modu berdintasunezkoago batean eskuratzen lagundu ahal duelako. Euskal AE 251 udalerritan banatzen da: 51 Araban, 88 Gipuzkoan eta 112 Bizkaian. Gainera, biztanle horietako batzuk udalerri txiki eta ertainetan bizi dira, kasu batzuetan hirigune handietatik urrun.

